ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko azaroaren 3a > Astelehena > VI. urtea > 209. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Hizkuntza gutxituak desagertuko diren mehatxuari gogor egin behar diogu aurre"
**Alan King**
Euskaltzain Urgazlea > 06



**G2a** Danbaka: bigarren kontzertua > 23

**ANTZUOLA**
Debagoieneko Trikitilarien Egunaren aldeko jaialdia > 09

**KIROLA**
Asier Garitano Alacanteko entrenatzaileari elkarrizketa > 22

**KULTURA**
RIPeko Portu eta Karlosen omenezko kontzertua > 26

**BERGARA** > MIZPIRUALDE

## Egoitza berria aztertzen dabiltza

Bi kokaleku aztertu ditu Bergarako Udalak > 11

**EUSKONEWS** > URTEURRENA

## Velez de Mendizabalen lan berria: 'Badok hamahiru'

Josemari Velez de Mendizabalek *Badok hamahiru* izenburuko liburua aurkeztuko du bihar Donostian. Euskonews aldizkari digitalaren 10. urteurrenaren harira, 13 euskal pertsonaiari egindako elkarrizketak bildu ditu bertan, azken 50 urteotan Euskal Herriak izandako bilakaera islatu nahirik. > 05




EZUSTEA Fraiskozuriko lehen sprinta irudian, baina oraindik herrian barrena ibili behar ziren korrikan. Atletek ezustea hartu zuten hor. JOSETXO ARANTZABAL

**ATLETISMOA** > SORALUZE-BERGARA KROSA

# Driss Ben Said azkarrena Bergarako helmugan

**ARRAKASTA** 323 partaide izan ziren zapatuko lasterketan; 130 gaztetxok korritu zuten baita herriko kaleetan

**AFRIKARRAK NAGUSI** Driss Ben Said eta Wambui irabazleak; Ritxar Fernandez seigarren iritsi zen > 20-21

**EHIZA** > DEBAGOIENA

## Bi mila ehiztaritik gora gurean

Ibarreko herri gehienetan zale ugari daude > 03

**ARRASATE** > INMIGRAZIOA

## Etorkinen kopuruak gorakada nabarmena

721 etorkin daude erroldatuta > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

## Azken minutuak erabakigarri

Azken minutuak erabakigarriak gertatu ziren futbol taldeendako: UDAk Zumaiakori 92. minutuan irabazi zion; Aloñari banakoa egin zion EHU-Vasconiak 94. minutuan; Mondrak 0-1 galdu zuen, ondo jokatu arren. > 15

Egin zaitez ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun...
Sariak astero!
> Ikus 5. orrialdea


SUPER AMARA
DENAK GUTXIAGO BALIO DU
BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea,18 P Bezeroentzako Aparkalekua

**Arrasatekobaserriko produktuenazoka**

Azaroak 8 Seber Altube Plaza 09:00 -14:00 08



Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea: ibai-arte

Arrasateko baserriek eta merkatariek **konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea** eskaintzen dizkizuete.

**EHIZA** > DEBAGOIENA

# Basoetan egunotan bi mila ehiztaritik gora dabiltza

**SAN HUBERTO** Gaur, astelehena, ehiztarien eguna da eta hainbat herrietan ekimenak antolatu dituzte

**EKIMENAK** Zapatuan Antzuolako Eperra elkarteak afaria egingo du eta Aramaion herri mailako txapelketa dute

**ZALETASUNA** Bailarako herri gehienetan ehizean ibiltzeko zaletasun handia dago gaur egun

**DENBORALDIA** Oilagorrak, usoak, eperrak eta ehiza larria harrapatzen dihardute orain; lehen biak inguruko basoetan



Ehiza denboraldian sartuta daude Debagoieneko ehiztariak. Urtarrilera bitartean, usoak, oilagorrak, eperrak eta ehiza larria harrapa daitezke. SAFETY DRIVE

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gaur, astelehena, San Huberto da; ehiztarien zaindariaren eguna. Urteroko ohiturari jarraituz, egun hori ospatzeko afaria egingo dute zapatuan, hilak 8, Antzuolako Eperra kirol elkartekoek. Afarira joan nahi duten bazkideek eguaztenera arte dute elkartean izena emateko aukera.

Afari horrek eta Debagoieneko herri gehienetan ehiza elkarteak izateak argi uzten dute eskualdean ehizean ibiltzeko zaletasuna badagoela. Bailaran bi mila ehiztaritik gora daude. Kontuan hartu behar da, horren harira, Oñatin bakarrik 700 lizentzia inguru daudela. Orain denboraldi erdian murgilduta daude. Joan den urriaren 12a hasi zen hori.

Oñatiko Pago Uso elkartean lanpetuta dabiltza azkenaldian. Oraindik libreak badira ere, Aizkorri-Aratz natur parkearen eremu barruan dauden Araotzeko ehun bat ehiza postu erregularizatzen dihardute. Horrekin batera, postuak ere txukundu eta hainbat kasutan, gainera, aldamio egitura jarri behar dute. Hori, baina, garesti irteten da eta dirulaguntzak behar dituzte.

Antzuolan, bestalde, Eperrako kirol elkartea dago. Hango Jose Luis Arregik azaldu du horrek 140 bazkide inguru dituela. Ehiztariei baimenak ateratzen lagundu eta Gorla mendiko 40 bat uso postuak kudeatzen eta zozketatzen dituzte, besteak beste. Arregiren arabera, "usoen postuena nahiko ondo joaten da. Lehen mendia zikin eta bakoitzak nahi zuen moduan uzten zuen".

Bergarako taldeak Oilagorra du izena. Luis Etxabarrik esan digu 400 ehiztaritik gora direla. Egun gutxi biltzen direla esan du, egoitzarik ez dute-eta. Udalarekin harremanetan jarri dira baina, oraindik ez dute tokirik topatu. Oztopoak gaindituz, aurten ere urteroko txapelketa antolatu dute Zanbranan. Han 50 bergarar inguruk parte hartu dute.

**DENBORALDIAK**

Etxabarrik azaldu du usoak eta oilagorrak harrapatzen dituztenak Angiozarrera eta Basalgora joaten direla. Baina, eperrak, galeperrak eta ehiza larria nahi dutenek Arabara eta Espainia aldera jo behar dutela dio, ehiza esparru pribatu batera. Horrekin batera, gogorarazi du espezie bakoitzak bere denboraldia duela. Abuztuaren erdialdetik irailabitartean, galeperra eta pagausoen txanda da. Urritik urtarrilera bitartean, berriz, usoak, oilagorrak, eperrak eta ehiza larria harrapa daitezke.

Eskoriatza aldean ere zaletasun handia dago. Aldaipe elkartea dago han. Arrasaten, bestalde, Leintze taldea dago. Udalerrian ehiztari asko dago eta beraz, Kurtzetxikin eta Larriñon ibiltzeaz gain, Eskoriatzara eta Gatzagara jotzen dute. Azken herri horretan 40 ehiztari eta 100 postu inguru daude. Azken horren harira, 64 onura publikoko basoetan daude eta Ehiza Federazioarenak dira. Horrek esan gura du inguruko herrietako ehiztariak joaten direla; tartean, Arrasatekoak. Gatzagako Ehiza Elkarteak, berriz, bi pertsonendako 18 postu ditu.

Bestalde, Aramaioko Oilogor Ehiza eta Arrantza elkarteko Kristobal Goikoetxeak dio 220 bazkide dituztela. Hilero biltzen badira ere, abuztuan hasten da gogorrena: Maroton, Jarindon, San Adrianen, Kurtzetan, Larrazabalen, Arangion dituzten 145 uso postu txukundu eta zozketatu dute, besteak beste.

Goikoetxearen esanetan, zaletasuna behera doa Aramaion: "Gipuzkoan gazteek zaletasun handia dute baina Aramaion gazte gutxi sartzen da. Urtero kopurua jaisten da". Egungo gazteen zaletasunak bestelakoak direla dio. Esaterako, aste bukaeratan eskiatzera joatea gustuko dute.

Bestalde, esan du ingurunean ehizean ibiltzea ez dela oso garestia. Urtero bazkide bakoitzak ordaintzen dituen 91 euroei, kartutxoetan gastatzen dituzten 60 euro eta lizentzia eta asegurua beste 40 bat euro gehitu behar zaizkie. "Gu ibiltzen garen bezala ez da oso garestia. Beste kontu bat da kanpora esparru pribatu batera joatea".

Debagoieneko herri gehienetan herri mailako txapelketa egiten dute. Aramaion, esaterako, zapatuan egingo dute. Elgetan, azkenik, ez dago mugimendu larregirik elkarte mailan. Lagun artean joaten dira ehiza egitera.



Irudian, Antzuolako Eperra elkarteko kideak. GOIENKARIA

HEZKUNTZA > EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

# Diploma banaketa egin zuten Huhezin

Huhezi fakultateko kapera eraberrituan egin zen lehenengo ekitaldian, Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak hitzaldi bat eman zuen

TXOMIN MADINA > ESKORIATZA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditu tituloa jaso zuten egubakoitzean, Huheziren fakultatean, graduondokoaren lehen ikasturtea jarraitu duten ikasleek. Graduondokoak izan dituen 58 ikasleetatik 44k aurkeztu dute proiektua, eta horiei banatu zitzaizkien diplomak. Gehienek hartu zuten parte egubakoitzeko ekitaldian.

Huheziko arduradunak bertan egon ziren, tartean Nekane Arratibel dekanoa. Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak Etxeberri, Euskararen Historia Soziala biltzeko Euskaltzaindiaren egitasmoari buruz egin zuen berba. Diploma banaketaren ostean, Jon Sarasuak eta Iñaki Urruzolak graduondorako idatzitako ereserkia kantatu zuten irakasleek eta ikasleek ere izan zuten protagonismorik. Batzuk bertsotan aritu ziren, beste batzuk kantuan eta egon zen ipuinak kontatu zituenik ere. Huheziren egoitzako kapera berrituan egin zen ekitaldia.



Huheziko kapera berrituan egin zen diploma banaketa. GOIENKARIA

**GRADUONDOKO ARRAKASTATSUA**

Julen Arexolaleiba graduondokoaren koordinatzailea. Oso gustura agertu zen lehen ikasturteak eman duenarekin, eta azpimarratu zuen graduondokoak iraun duen hilabete hauetan guztietan, euskal idazle,musikari eta kulturako beste hainbat esparrutako jendeak hartu duela parte bertan euren esperientzia azaltzen. Iragarri zuen era berean, datorren urtarriletik aurrera berriz ere ekingo diotela graduondoko honi.

PRESOAK

## Protestak gaixoen eskubideen alde

M. ARREGI/T. MADINA > ARRASATE

Arrasateko presoen senideek elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Debagoieneko Ospitalearen aurrean, gaixorik dauden euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko. Hala, bat egin zuten nazio mailan Etxeratek deitutako mobilizazioekin

Bertaratuek, espetxea gaixotasunen sorlekua dela adierazi zuten, eta euskal preso politikoen kasuan, ezartzen zaien espetxe politikak egoera larriagotu egiten duela. Larri dauden presoei dagokien askatasun eskubidea ere aldarrikatu zuten.

**PRESOEN ARGAZKIAK**

Ibarreko preso gaixoen argazkiak atera zituzten elkarretaratzean, Jon Agirre eta Eperrarenak hain zuzen ere.

## AHTren kontra, bi lagun kateatu ziren Aramaioko lanetan

AHTren Aurkako Asanbladako bi lagun Aramaioko Untzilla auzoan egiten ari diren AHTren obretako hondeatzeko makina batera kateatu ziren egubakoitzean lan hauen kontra protesta egin eta ingurugiroari egiten zaion kaltea salatzeko.
Ekintza hasi eta gutxira, ertzainak bertaratu ziren, eta kateatuak eta euren ingurukoak identifikatu ostean, suhiltzaileak arduratu ziren kateak mozteaz.



TXOMIN MADINA

ATENTATUA > GAITZESPENAK

## Egueneko atentatuagatik elkarretaratzeak MUn

Elkarretaratzeak egin zituzten ETEO eta Huhezi fakultaeetan

T. M. > OÑATI

Pasa den eguenean Nafarroako Unibertsitatean hainbat zauritu eragin zituen atentatua gaitzesteko, egubakoitzerako elkarretaratzeak deitu zituzten Euskal Herriko Unibertsitate ezberdinetan.

Dei horri erantzunez, Mondragon Unibertsitateko Oñatiko ETEO eta Eskoriatzako Huhezi fakultateetan geldialdiak egin zituzten eguerdiko hamabietan.

**ARRASATEN, EZ**

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan baina, ez zuten deialdiarekin ofizialki behintzat bat egin, bertako Kontseilu Sozialaren erabakia kontrakoa izan zen-eta.



**KULTURA** > EUSKONEWS-EN 10. URTEURRENA

# 'Badok hamairu', Velez de Mendizabalen lan berria

Euskonews aldizkari digitalean 13 euskal pertsonaiari egindako elkarrizketak batu ditu Velez de Mendizabalek; bihar aurkeztuko dute liburua, Donostian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Josemari Velez de Mendizabalek *Badok hamahiru* liburua aurkeztuko du bihar, martitzena, Donostiako Miramar jauregian. Azken hilabeteotan Eusko Ikaskuntzako gerenteak 13 euskal pertsonaiari Euskonews aldizkari digitalean egindako elkarrizketak jasotzen dira bertan. Begoña Amunarriz, Javier Elzo, Pedro Miguel Etxenike, Carlos Garaikoetxea, Jean Haritchalar, Jose Angel Iribar, Luis Irizar, Mariasun Landa, Benito Lertxundi, Jose Mari Ormaetxea, Mirentxu Purroy, Javier Retegi eta Jose Maria Setien dira elkarrizketatuak.

Egilearen hitzetan, "elkarrizketa sakonen bitartez azken 50 urteotako erradiografia moduko bat egin nahi izan dugu, Euskal Herriko gizarteak denbora guzti honetan izandako bilakaera islatu nahirik. Horretarako enpresan, zientzian, kirolean, kulturan edo sukaldaritzan erreferente izandako hainbat pertsonaia aukeratu genituen eta bai, liburuaren izenburua, orain dela 40 urte inguru sortutako Ez dok hamahiru taldeari keinu bat da. Benito Lertxundiri komentatu nion tituluarena eta gustatu zitzaion ideia...".



Josemari Velez de Mendizabal.

**LIBURUA, DVD-REKIN BATERA**

Bihar aurkeztuko duten liburua elkarrizketen DVDarekin etorriko da. Elkarrizketa bakoitzak ordubete pasatxo irauten du eta euskaraz eta gazteleraz egindakoak dira, eta ingelesera ere itzulita daude. Velez de Mendizabalek zera adierazi digu: "Euskonews-en 10. urteurreneko ospakizunak borobiltzeko egindako liburua da. Euskal kulturari buruzko erreferente nagusia da Interneten eta jakin badakigu elkarrizketa hauek jarraitzaile ugari izan dituztela, urtarrilean ekin geniolako Interneten argitaratzeari. Mundu osotik gosez eta egarriz jarraitu dituzte eta helburuetako bat hori zen: gurea herri txikia izan arren, izarrak badituela, eta ez nolanahikoak gainera".

Biharko aurkezpena, esan bezala, Miramar jauregian izango da, 19:00etan.

**'BIZI IZAN JUAT', GAZTELERAZ**

Bestalde, Josemari Velez de Mendizabalek idatzi zuen *Bizi izan juat* liburua gaztelerara itzulita aterako du laster Arrasateko Udalak. Diego Martiartuk egin du liburuaren itzulpena eta hasiera baten urtea bukatu baino lehen aurkeztekoa zen. Dena dela, ez dute oraindik datarik zehaztu.

Etorkizunera begira, eskuartean beste liburu bat baduela baieztatu digu Velez de Mendizabalek baina ez du ezer aurreratzerik nahi izan. *Maalako errebala*; *Nire haurtzaroko Arrasate* edo *Jose Mari Azkarraga Mozo, 'Lurgorri': bere bizitza eta idazlanak* dira Velez de Mendizabalen beste lanetako batzuk.



JOSETXO ARANTZABAL

## Domu Santu Egunean eguraldiak lagundu zuen

Ohiturari jarraituz, ibarreko kanposantuak herritarren topaleku izan genituen zapatuan, Domu Santu Egunean. Astean zehar gertatu bezala jende asko gerturatu zen hilerrietara, hildakoen omenez lore eskaintzak egitera. Aurreko eguneko euriak alde batera laga eta eguraldiak lagundu zuen zapatuan. Goiko argazkia Bergarako kanposantuan ateratakoa da, zapatu goizean. Eguerdi partean ibili zen jende gehien hildakoei oroigarriak eramaten.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa
PARTE HARTZEKO | SMS 5533 harpidetza@goiena.com Tel.: 943 08 10 50
Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAK
JUAN CARLOS PEREZ-en KONTZERTURAKO SARRERAK
Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

BRUESAREN PARTIDUETARAKO SARRERAK
BRUESA GBC-ViveMenorca
BRUESA GBC-Pamesa
Bidali AG BRUESAPAM 5533 zkra
Bidali AG BRUESAVIV 5533 zkra

KAMERA

Bidali AG KAMERA 5533 zkra

KAMISETA

Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA )
Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak


SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Galesko Hizkuntzaren elkarteko kideak izan dira asteon Euskal Herrian, bertako erralitatea ezagutu eta Galeserako hizkuntzaren normalizazio bidean ekarpenak jasotzen. Euskal Herrira egin duten bidaian, Debagoienera eta Goienara ere egin dute bisita, eta taldearen itzultzaile lanetan aritu da galesa eta euskara ongi dakizkien Alan King euskaltzain urgazlea eta hizkuntzalaria.

**Alan King** > Euskaltzain Urgazlea eta Hizkuntzalaria

# "Hizkuntza gutxituak desagertuko diren mehatxuari gogor egin behar diogu aurre"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Sortzez ingelesa da Alan King, baina 12 urterekin sorlekua utzi eta munduan barrena, herrialde desberdinetan eman zituen hurrengo 12 urteak, 24 urterekin Euskal Herrira iritsi zen arte. Ordutik, Donostia eta Zarautz artean bizi izan da, nahiz eta denboraldi batzuk kanpoan egin dituen. Hizkuntza gutxituekiko sentsibilitate berezia erakusten du Alan Kingek; euskara, kataluniera, galiziera, El Salvadorreko hizkuntza gutxitu bat eta galesa dakizki beste batzuen artean.**



Alan King, Euskaltzaindiako gramatika batzordeko kidea da. Arrasaten izan zen eguenean, Galesko talde batekin. MIREN ARREGI

**Nondik dator galesarekiko duzun lotura hori?**

Hizkuntzalaria eta hizkuntza zalea naiz. Beti gustatu izan zaizkit hizkuntzak. Ni Ingalaterran jaio nintzen, baina sortu nintzen herria oso gertu dago Galestik. Zaletasuna edo interesa hor sortu zitzaidan eta liburuen bitartez hasi nintzen galesa ikasten. Ondoren, ezagutza hori sakontzeko, Galesen bizi izan nintzen urte eta erdiz, eta bertan ikasi nuen ongi hizkuntza.

**Nondik datorkizu hizkuntza gutxituekiko sentsibilitate berezi hori?**

Ez dakit zerikusirik duen baina, Ingalaterran jaio banintzen ere nire familia judutarra da. Juduek badute hizkuntza bat. Hizkuntza hori ekialdeko Europan asko hitz egiten zen. Garai batetan Europako judu askok hizkuntza hori hitz egiten zuten eta etxean, amarengandik iritsi zait niri. Ez dakit hori den arrazoia edo nire harrikada bakarrik den baina izan dezake lotura.

**Euskaltzaindiako kide zara. Zein da zure lana?**

Gauza desberdinak egin izan ditut, baina beti hizkuntzarekin zerikusia duten lanak, eta batez ere euskararekin zerikusia dutenak. Adibidez, bi liburu idatzi ditut ingelesez, euskara ikasi ahal izateko. Bat AEBetan argitaratu zen eta bestea Erresuma Batuan. Bestetik, Eusko Jaurlaritzarentzat ikerketa bat egin nuen irakaskuntza arloan, eta Euskaltzaindiako gramatika batzordeko kide naiz duela urte askotatik. Gainera, duela bost-sei bat urte, euskaltzain urgazle izendatu ninduten.

**Galeseko hizkuntzaren elkartea (Cymdeithas yr Iaith Gymraeg) zer den azaltzeko, Euskal Herriko zein elkarterekin konparatuko zenuke?**

Bat aukeratzekotan, Euskal Herrian Euskaraz aukeratuko nuke. Cymdeithas yr Iaith Gymraeg presio talde bat da. Hala ere, esango nuke, Euskal Herrian Euskaraz taldearen filosofiak ez duela ongi erakusten Galeseko hizkuntzaren elkartearen funtsa. Izan ere, Euskal Herrian euskararen aldeko talde mordoa dagoen moduan, Galesen askoz talde gutxiago dago, eta beraz, gizartean izan duen eragina handiagoa da. Azken finean, ideia da protestak egitea, manifestazioak edota alderdi politikoei presioa egitea, hizkuntzaren normalizaziorako bidean.

**Globalizazioarekin, hizkuntza gutxituek geroz eta desagertzeko arrisku handiagoa dutela diote. Zer esango zenuke?**

Bai, hala da, baldin eta horren aurka ez badugu ezer egiten. Pasiboki onartu egiten badugu, desagertuko da, baina kontzientziatu behar dugu, hori ezin dela horrela gertatu. Erronka horren aurrean gaude eta esaten dute mende honetan milaka hizkuntza gutxitu desagertuko direla, baina, mehatxu horren aurrean gogor egin behar dugu.

EUSKALTZAIN URGAZLE

**"Euskaltzaindiako gramatika batzordeko kide eta euskaltzain urgazle naiz"**

GALES HIZKUNTZAREN ELKARTEA

**"Elkartearen lana, presio politikoa egitea da protesten eta bestelako aldarrikapenen bitartez"**

HEZKUNTZA GALESEZ

**"Toki batzuetan galesez egin daitezke ikasketak baina tamalez hori ez dago lurralde guztian bermatuta"**

**Erabilera da hizkuntza baten lagunik onena. Galesen herritarrek erabiltzen dute bertako hizkuntza?**

Toki batzuetan erabiltzen da, baina, ingelesak du nagusitasuna dudarik gabe, eta ez bakarrik kanpokoen artean. Izan ere, bertakoek ere, galesa jakin arren, joera handia dute ingelesez berba egiteko. Kezkatzekoa da, izan ere, eskolan ikasten dute, baina gero ez dute erabiltzen.

**Hezkuntzak bermatzen ditu ezagutza eta erabilera?**

Ez toki guztietan. Toki edo gunearen arabera, asko aldatzen da. Ingalaterrarekin muga egiten duen zonalde batetan, badute galesezko eskola eredu bat, gales hutsezkoa gainera. Beraz, hor badago galesezko hezkuntza bermatuta. Hala ere, hori ez da lurralde guztian gertatzen. Gobernuak, bidea ematen du ikasketak gales hizkuntzan egiteko, baina, testuliburuekin, arazo handiak dituzte. Ez dago galesezko testuliburuik, edo baldin badaude ere, berehala etortzen dira erreformak eta aldatu behar izaten dira testuliburuak... Horretarako baliabiderik ez dagoenez, askotan irakasle bakoitzaren esku gelditzen da eskolak nola eman erabakitzea. Kontutan hartu behar da, nahiz eta eskolak galesez eman, testuliburuak ingelesez daudela.

**Hori erregulatzea noren eskumena da? Erresuma Batuko gobernuarena ala Galesen badute gobernurik?**

Duela gutxi sortu zen Galeseko Asanblada deiturikoa. Gobernu autonomiko bat izango litzatekeena da eta suposatzen da horrek aldaketa batzuk ekarri beharko lituzkeela, baina asanbladak ere ez du ezer egiten.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1937an jaiotakoen kinto ospakizuna**
1937an jaiotakoek Zabala jatetxean bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan eta Yoar dendan, 20 eurotan.

BERGARA
**> 1960an jaiotakoek batera afalduko dute**
1960an jaiotako bergararrek kinto bazkaria izango dute azaroaren 15ean Lasan. Izena emateko, 10 euro aurreratu Igarza harategian edo Barrenkaleko estankoan.

BERGARA
**> 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**
1933an jaiotako bergararrak bazkaltzeko elkartuko dira azaroaren 16an Zumelaga jatetxean. Izena emateko, 6 euro aurreratu behar dira Intxorta tabernan.

BERGARA
**> 1930ean jaiotakoek kintada egingo dute**
1930an jaiotakoek bazkaria izango dute azaroaren 8an Zumelagan. Izenematea zabalik dago honako telefonoetan: 943 76 26 23 edo 943 76 22 22.

ARRASATE
**> Afrikaren gaineko bidaiak, hizpide**
Afrikako safariak eta Mauricio eta Seychelles uharteak hizpide izango dituzte Eroski Bidaietako hizlariek eguenean, hilak 6, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 19:30ean.

BERGARA
**> 1973an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1973an jaiotakoek Zabala jatetxean bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan edo Yoar oinetako dendan, 20 eurotan, azaroaren 12a arte.

OÑATI, ARRASATE
**> Arantzazuren gaineko bi hitzaldi egingo dituzte**
Arantzazu Gaur fundazioak antolatuta, Arantzazuren gaineko astea egiten dabiltza Gipuzkoa osoan. Debagoienean, honako hitzaldiak izango dira: etzi, eguaztena, Oñatiko udaletxean, Telesforo Zuriarrain, Jose Antonio Arkauz eta Lourdes Idoiagarekin; eta hilaren 7an, egubakoitza, Arrasateko kultura etxean, Joxe Arregi eta Iker Usonekin. Biak 19:30ean hasiko dira.

ARRASATE
**> Elizondora irteera egingo dute Abaroakoek**
Abaroa erretiratuen elkartekoek Elizondora irteera dute azaroaren 13an. Izenematea azaroaren 5ean da, 10:30ean. 24 euro da.

ARETXABALETA
**> Munduko dantzen ikastaroa egingo dute**
Munduko hainbat herrialdetako –Grezia, Israel, Eskozia…– dantzak erakutsiko dituzte, Jaiki elkarteak antolatutako ikastaro baten, azaroaren 15ean eta 16an. Izenematea zabalik dago: *jaikielkartea@yahoo.es* / 645 73 91 62.

BERGARA
**> Bitartekaritzaren gaineko hitzaldia**
Bizikasik eta Cim-Bitartez erakundeek honako hitzaldia antolatu dute: *Bitartekaritza: Eguneroko gatazkak eta familia bizikidetza hobetzeko tresnak*. Gaur, astelehena, izango da Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

ARRASATE
**> San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleak**
San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleek afaria egingo dute azaroaren 28an, eta izenematea zabalik dago azaroaren 18a arte *jongoiko@iservicesmail.com* helbide elektronikoan eta 649 37 58 05 telefonoan. Egunean, 19:30ean batuko dira Iratin.

ARRASATE
**> 1943an jaiotako emakumeen ospakizuna**
1943an jaiotako emakumeak bazkaltzera batuko dira. Izena ematekо, joan Muruamendiaratz gozotegira.

BERGARA
**> 1953an jaiotakoen kinto afaria**
1953an jaiotako bergararrek afaria izango dute azaroaren 15ean Tartufon. Izenematea zabalik dago jatetxe hartan edo Tasioren ONCEko kioskoan, 15 eurotan.

BERGARA
**> 1958an jaiotakoek, 50. urteurreneko afaria**
1958an jaiotakoek 50. urteurrena ospatzeko afaria izango dute azaroaren 8an, Tartufon. Usoa kafetegian daude txartelak.

OÑATI
**> Umeen arreta gabeziaren gaineko jardunaldiak izango dira bihar, martitzena, hasita**
Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, arreta gabezia familian nola tratatu landuko du Carlos Urio adituak hainbat saiotan. Lehenengoa bihar, martitzena, izango da, Arantzazuko Amako ikastetxean, 18:30ean. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako gurasoendako da; gerora, beste adin batzuetarako egingo dituzte.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Ubane Madera > *irratia@goiena.com*

# Galesen ere, euskaldunon antzera

Asteon izan dugu Goienan Galesko talde baten bisita. Gura zuten ikusi Euskal Herriko hainbat lekutan zela dihardugun lanean euskaren alde, eurak ere lan berean dihardute-eta han, Britainia Handia inguru hartan. Eta besteak beste, Arrasate Irratian euretako birekin jardun genuen, euren esperientzia eta egoeraren berri jakin guran.

Kontatu zuten, hemengo egoeraren antzera, han ere, oro har, erakundeen babesa igartzen dutela faltan Galesko hizkuntza gutxituaren aldeko lanean, eta gizartean, batzuk Galesko hizkuntza ederki jakin eta erabiltzen duten arren, beste askok ikasteko interesik ez dutela erakusten eta erabiltzeko ahalegin handiegirik ere ez dutela egiten.

**"Euskarak biziraun behar badu, ez dugu ez lo gelditzerik"**

Kontatu zuten, hala ere, eskoletan irakasten dutela hizkuntza eta %20ak berba egiten duela. Hemen baino gehiagok, beraz.

Datu bat: hori guztia kontatu ziguten euskaraz. Izan ere, euren hizkuntzaz eta ingelesaz gainera, euskara ere bazekiten jakin. Beraz, hizkuntza gutxituen gaineko informazio eta esperientzia dezentekoa dute. Horren harira, eurek esandakoa nabarmenduko nuke: *Euskarak biziraun behar badu, ez dugu ez lo gelditzerik*.

**> Hizkuntza indartsuak herrialde gehienetan (guztietan ez bada) ahalegintzen dira euren berbak inposatu eta hizkuntza txikia baztertu eta desager dadin; hala egin dira indartsu**

**> Normalean hizkuntza nagusia ahalegintzen da txikia desprestigiatzen, haren praktikotasuna zalantzan ipintzen; benetan hala balitz, hizkuntza horiek praktiko ez balira, ez lukete biziraungo orain arte**

## debagoiendarrak kanpoan

Arkaitz Gaintzarain > Arrasate

# "Arrasatearrok 'astogok' eta 'latzagok' garela esaten dute Goierri aldean"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Arrasaten eta batez ere bere Garagartza auzo kuttunean *Tripas* ezizenez da ezaguna Arkaitz Gaintzarain (Arrasate, 1980). Mondraren azpiko mailatan atezaina izan zen urteetan zehar, eta gero jubeniletako entrenatzaile ere izan zen. Egun futbolean jokatzeaz gain, bizikletan ibiltzea eta korrika egitea maite ditu *Tripas*-ek; triatloi bat baino gehiago burutu du dagoeneko. Egun Beasaingo Poyam enpresan dihardu lanean.**

**Zergatik utzi zenuen zure Garagartza auzo kuttuna?**
Neska laguna idiazabaldarra da eta batera bizitzera joateko orduan argi geneukan lekua ez zela garrantzitsua izango. Arrasaten ez zegoen etxebizitza bat lortzeko aukerarik, eta Beasainen sortu zitzaigun aukera.

**Asko kosta zitzaizun bizitza berrira egokitzea?**
Egun hemengo bizitzara nahikoa egokitu naiz, baina hasieran kostatu egin zitzaidan. Dena zen berria: lanez aldatu beharra, jende ezberdina, lagunen eta familiaren hutsunea, etxearen kontua... Hasieran bueltaka ibili nintzen, hara eta hona; zoratu beharrean.

Hala ere, gutxira Idiazabalen lanean hasteak asko lagundu zidan, eta baita, noski, neska lagunarengandik eta bere familiarengandik jasotako laguntzak.

**Non gusturago, han ala hemen?**
Arrasate beti izango da nire herria. Edozein lekutan nagoela ere, oso gustura sentitzen da bat bere herrian: lagunak, familia, haurtzaroa... Orain, baina, nire lekua Beasainen dago.



A.G..

**Kirola bizi ardatz**
Arkaitz Gaintzarain *Tripas*en bizitzan kirolak pisu handia dauka; batez ere futbola, bizikleta eta korrikan egiten du.

**Zeintzuk dira beasaindarren eta arrasatearren arteko ezberdintasun nagusiak?**
Goierri aldean jendea asko mugitzen da herri batetik bestera, eta Arrasaten, berriz, asko kostatzen zaigu mugitzea, batzuoi behintzat. Bestalde, oso jende jatorra eta sanoa dago Goierrin, eta hemen esaten dutenez, gu *astogok* edo *latzagok* gara. Arrasatearrok kasta gehiago daukagu, eta itxuraz ere baldarragoak gara. Hemen, ostera, itxurak eta formak asko zaintzen dituzte.

Beste ezberdintasun handi bat ere aipatu nahiko nuke: Beasainen ez dago *zona gorria* [Arrasateko alde zaharreko tabernak], taberna gehienak *arrosagoak* dira ... (barre). Hala ere, Arrasaten bizi nintzen moduan, Beasainen ere ederto bizi naiz.

**Kirolzale amorratua zara. Ziur Beasainen ere ez zarela geldi egongo...**
Ba, ez. Laneguna amaitu ostean kiroldegitik bueltа bat ematen dut ia beti. Bestalde, Beasaineko futbol talde batean ere jokatzen dut, zazpiko futbolean.

Aintxintxika triatloi taldean ere jarraitzen dut, eta orain arte hiru duatloi, Euskal Herriko triatloi zirkuitua eta Zarauzko triatloia egin ditut, besteak beste.

**Zer botatzen du *Tripas*ek faltan?**
Noizean behin astakeriaren bat egitea (barre). Ez, familia, ilobak eta lagunak faltan botatzen ditut. Egun ditudan lagun asko Arrasaten futbolari lotuta jardun nuen urteetan egindakoak dira, jokatzen zein entrenatzen; oso lagun onak egin nituen.

**kale inkesta**

# Zapatuan Domu Santu eguna izan zen. Kanposantura joateko ohitura duzu?



**Josu Goenaga**
Langilea
Azpeitia

Ez. Garai batean familiarekin hilerrira joateko eguna bazen ere, ohitura hori aldatu da. Zapatuan ez nintzen hilerrira joan, urteko edozein eguna da-eta ona joateko. Bestalde, etxekoak elkartu ginen bazkaltzeko.



**Arantzazu Beain**
Langilea
Bergara

Bai. Orain dela gutxi ama hil zitzaidan eta askotan joaten naiz kanposantura, ez Domu Santu egunean bakarrik. Urtean zehar astero noa eta loreak eramaten dizkiot. Bestalde, familiarekin biltzeko ohiturarik ez dut.



**Jose Luis Quinta**
Langilea
Bergara

Bai. Kanposantura joan eta senitartekoei loreak eraman nizkien. Gurasoak, gainera, Ourensen ditut lurperatuta eta loreak bidali nituen. Han debozio handia dago. Normalean, familiakoekin ere bazkaltzen dugu.



**Marian Zubizarreta**
Langilea
Bergara

Kanposantuan senitartekorik ez badut ere, urtero joaten naiz. Hara joatea gustatzen zait, dagoeneko gure artean gogora ekartzen ditut-eta. Bestelako ospakizunik ez dut egiten. Egun normala da niretako.

**zorroztailea**



**Joxemari Muxika**

# Sistema zuzendu beharra

"*Washington Post* AEBetako egunkariak zalantzan jarri du ea AEBetako bankuek jasotako diru publikoa ezarritako helburuetarako erabiliko duten. Bankuak 163.000 milioi dolar jasotzen ari dira, euren bezeroei maileguak eman ahal izatea bultzatzeko. Baina egunkari horren arabera, dirutza horren erdia baino gehiago akziodunei dibidenduak pagatzeko erabiltzeko bidean da".




Berria > 08-10-31

Inoiz ez bezalako finantza krisialdian gaude, banku eta aseguru etxeetan izan du oiartzunik handiena, baina ekoizpena egiten duten enpresetan ere eragina nabaritzen hasia dago eta kontsumoan ere nabari omen da. Eta krisi handi honen guztiaren iturria dirua erraz irabazi nahia izan omen da, espekulazioa.

Dirua irabaztea guztioi gustatzen zaigu. Baina errua ezin da guztion artean banatu. Dirudunei, kapitalistei eta hauen interesetan jokatu duten gobernariei eta soldata xumeaz baliatu direnei ezin zaie maila bereko erantzunkizuna ezarri. Merkataritza Munduko Erakundeak, Diru Funtsak, G-8-ak eta holako erakundeek duten erantzunkizuna itzela da. Beraiek diseinatu, kudeatu eta inposatu dute gaur eguneko sistema ekonomiko neoliberala.

> **"Dirua irabaztea guztioi gustatzen zaigu. Baina errua ezin da guztion artean banatu"**
>
> **"Sistema zuzenketa izatekotan, jendarte zibilak eragiten badu izango da"**

Bankuen diru eskasiari aurre egin ahal izateko, agintari politikoak milaka milioko dirutza jarriko dutela adierazi dute eta jartzen hasiak dira. Jendarte zerbitzutan faltako da hori. Gobernuek jartzen ari diren diru guzti horren iturria zergak dira, soldatapekoek ordaindutakoak, derrigorrez bada ere. Akziodunek, profesio liberalek eta enpresario txiki eta handiek zerga ordaintzeari izkina egin ohi diote.

Dirua guztion onerako omen da, baina *Washington Post* egunkariak azaldu duenez, "akziodunei dibidenduen bitartez" partitzen hasi dira. Hori al da krisitik ateratzeko bidea? Frakasatu duen sistema kapitalista gaindituko duen ordena berri justuagorik izango al dugu? Gaur egungo agintari politikoengandik ez dezakegu gehiegi espero. Sistema zuzenketa izatekotan, jendarte zibilak eragiten badu izango da, antolatua eta etengabeko presio bidez, bestela jai dugu.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Zaldibarko inguruak oso zikin egoten dira**

Arrasatetik idatzi digute –eta erretratuak ere bidali dizkigute– azaltzen zelan geratzen diren Zaldibarko inguruak asteburuan. Areto futbol txapelketa dela-eta, jende asko egoten da harmailetan futbol partiduak jarraitzen, pipak jaten, Coca-Cola latak edaten, zigarroak erretzen... Eta, partiduak amaitzerakoan negargarri geratzen da dena.

ARRASATE

**> Arrasateko saihesbidea negargarri dago**

Aretxabaletako irakurle batek deitu du esaten Arrasateko saihesbidea oso arriskutsu dagoela. Izan ere, eguraldi txarra egiten duenean bistan geratzen da saihesbidea ze txarto dagoen. Zelanbait konpondutako zuloak... Horrekin batera, irakurleak esanetan "Errepideko marrak ez dira ikusten, eta kontrako norabidean datozen autoen argiek lurrean egiten duen erreflexuak ez du batere laguntzen".

BERGARA

**> Zabalotegi aretoan zine emanaldirik ez?**

"Bergarako Udala zoriondu nahi dut Zabalotegiko aretoa berritu duelako, baina nire galdera ondorengoa da. Badirudi zine emanaldirik ez dagoela aurreikusita. Herrian dagoen hutsune hori betetzeko Zabalotegi aproposa ez ote den da galdetu gura dudana". Bada, eginda dago galdera.

**usteak uste**

**Txomin Madina**

# Euskara, moda bat?

Vamos a la bertso kanporaketa", "yo ya he comprado las txartelas", "después de Katamalo, echamos una juerga en Durango". Bilbon, euskal giroko taberna baten entzundakoak dira harribitxiok. Hiztunak, neska-mutil talde bat, euren zapi palestinar, piercing eta mendian erabiltzen diren arropekin. Eta horrelakoak esan ostean, euskara garbi garbian, euskara jasoan idatzitako poesia liburu bat irakurtzen hasi ziren. Euskaldunak ziren? Zentzu zorrotzean, seguru baietz. Baina ni harrituta geratu nintzen, harrituta eta triste. Izan ere, ez dago Bilbora joan beharrik halakoak ikusteko. Zein puntura arte bihurtu dira euskara eta euskalzaletasuna produktu bat, moda bat, muinik gabeko jarrera kontua? "Hagamos" hausnarketa.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina eta Xabier Urtzelai. **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



> ARRASATE
Erroldatuta dauden etorkinen kopurua 3,6 aldiz biderkatu da 2002. urtetik > 10



> BERGARA
Mizpirualde zaharren egoitzarako kokaleku berria aztertzen dihardu Udala > 11



> OÑATI
Kiroldegiko tasa eta zaborrarena %10 igoko dira datorren urtean > 12

**ANTZUOLA** > AISIALDIA

# Trikitilariek eta saiheski erreak Zurrategi berotu zuten zapatuan

**BALORAZIOA**
Antolatzaileak oso pozik daude ekimenak izandako harrerarekin

**570 EURO**
Guztira, 300 saiheski pintxo banatu ziren eta 570 euro batu zituzten

**AZAROAREN 19AN**
Trikitixa Egunerako ekarpenak jasoko dira hilaren 19ko bileran




Zapatu iluntzean 300 saiheski pintxo inguru banatu zituzten Antzuolako Zurrategi plazan. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

Eguraldiak ez zuen huts egin eta euriak atsedenaldia eman zuen zapatuan, Antzuolan saiheski jana ederto irten zedin. Ekimena aurreikusitako orduan hasi zen: 19:00etan. Ordurako parrillan erretako lehenengo saiheski zatiak jateko prest zituen Zurrategi plazan Peli Muxika harakinak. Jendea dagoeneko zain zegoen okela probatzeko.

Aurretik, baina, Trikitixa Eskolako kide Marije Zubimendi zegoen postutik pasa beharra zegoen, bi euroren truke txartela erosteko. Horrekin ondoan zegoen karpara joan eta saiheski zati ederra eta ardoa hartzen hasi ziren. Handik gutxira, "okela ederra dau" irteten zen gehienen ahotik. Ardoak okela hobeto jaisten laguntzen zuen. Amaitu bezain pronto, asko txartelen postua bisitatu zuten berriro, errepikatzeko asmoz.

**HAMAHIRU TRIKITI ETA PANDERO**

Bitartean, trikitilariak eta soinujoleak kioskoan zeuden, pieza ezagunak jotzen. Hamar eta hamalau urte bitarteko hamahiru gaztetxok plaza alaitzen zuten. Haurren bat baino gehiago dantza egitera ere animatu zen zapatuan. Emanaldia amaitu zutenean, azkar jaitsi ziren kioskotik. Saiheski beroa zain zuten trikitilariek ere.

Guztira, Giokelako 50 kilo okela erre zituzten 20:30ak bitartean. Marije Zubimendik jakinarazi du Gipuzkoako baserrietan eta Gipuzkoako pentsuekin hazitako 300 pintxo inguru banatu zituztela trikiti ikasleen gurasoek. Diruari dagokionez, 570 euro batu dituztela ere azaldu du.

Jakina denez, datorren urtean Antzuolan izango da V. Debagoieneko Trikitilari Eguna. Horretarako data dagoeneko jarrita dago: apirilaren 25ean izango da. Jaialdia Antzuolan egitea erabaki zenetik, lanean gogor dihardute trikitixa ikasleen gurasoek. Dirua batzeko lehenengo ekimena uda partean egin zuten, herriko jaietan. Sardina-jana antolatu zuten orduan. Debalde eskaini zuten arraina, sagardoarekin batera.

Zapatuan aurreikusitako guztia saldu zuten eta beraz, oso balorazio positiboa egin du Zubimendik: "Arrakastatsua izan zen oso ekimena. Jendea gustura egon zen, trikitixa entzuten zuten bitartean saiheskia jaten".

**AZAROAREN 19AN BILERA**

Saiheski janaren ondotik, bilera egingo dute eskolakoek. Azaroaren 19an elkartuko dira trikitixa ikasleen gurasoak. Orain arte egindakoa aztertzeaz gain, trikiti egunerako bakoitzak dauzkan ekarpenak bota ahal izango dira batzar horretan. Zubimendiren esanetan, "hortik aurrera Trikitixa Egunerako ekintzak antolatzen jarriko gara".

Amaitu aurretik, Zubimendik eskerrak eman gura izan dizkie ekimena antolatzen lagundu eta zapatuan Zurrategin bildu ziren guztiei.



Bidezko merkataritzako produktuak ondo saldu dira. JOSETXO ARANTXABAL

## Senegalen dituen proiektuen berri eman du Anelkarrek

Anelkarrek Senegalen gaineko erakusketa jarri du aste bukaeran Olaranen. Hara joan zirenak Gobernuz Kanpoko Erakundeak parte hartzen duen proiektu berri jaso zuten, hala nola, Dakarren etxeko andreendako alfabetatze eskolarena edo Ziginchor hiriko liburutegiarena. Herrialde horren egoeraren gaineko ikus-entzunezkoa ikusteaz gain, bidezko merkataritzako produktuak erosteko aukera izan zuten. Kafea, azukrea, txokolatea, gozoak eta usaindun xaboiak saldu zituzten bereziki.

**INMIGRAZIOA** > ETORKINEN EGOERA ARRASATEN

# Etorkinen auzian herritarrek jarrera aktiboa izan behar dutela dio Udalak

2002 urtetik hona erroldatuta dauden etorkin kopurua 3,6 aldiz biderkatu da; egun 721 dira

Etorkinen inguruan Udalak bultzatu duen azterketa aurkezteko prentsaurrekoa egingo da etzi



Gero eta etorkin gehiago dago Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Inmigrazioaren gaia aspaldiko kontua da. Euskal Herria emigrazio lurralde izatetik etorkinen helmuga izatera pasa da, eta Arrasate ere bada horren lekuko. Azken urteetan, gainera, etorkin kopuruak nabarmen egin du gora Arrasaten.

Etorkinek udalerrian bizi duten egoera aztertzeko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak diagnostiko bat bultzatu du kolektibo honen ezaugarriak jaso eta gaia sakonago aztertzeko asmoz. Azterketa Prospektiker deritzon ikerketa etxeak gauzatu du, eta helburua Arrasaten bizi diren etorkinen inguruan ahalik eta informazio gehien jasotzea da. Informazio honen bitartez etorkizunean inmigranteei dagozkien arloetan esku hartzerakoan irizpideak finkatu ahalko ditu Arrasateko Udalak.

Datuok herriari ezagutarazteko asmoz, diagnostikoaren txostena aurkeztuko du Udalak. Udaletxeko pleno aretoan egingo da prentsaurrekoa; etzi, hilak 5, 18:00etatik aurrera. Udalak jakinarazi du aurkezpena arrasatear guztiei zuzenduta dagoela.

**GORAKADA NABARMENA**

Egun 721 etorkin daude erroldatuta Arrasaten. Ez dira gutxi, are gehiago, erroldatu gabekoak beste hainbat izan daitezkeela suposatzen badugu. Azken urteetan etorkinen kopuruak gorakada handia izan du. Izan ere, 2002 urtetik 2008ko otsailera, 3,6 aldiz biderkatu da Arrasaten erroldatu diren etorkin kopurua. Hau da, orain dela sei urte 199 inmigrante zeuden eta egun 721 dira. Horrek esan nahi du Arrasateko biztanleriaren %3, 27a inmigrantea dela.

**EUROPATIK KANPOKOAK GEHIENAK**

Arrasatera datozen etorkin gehienak urrutitik datoz, Europa Erkidegotik kanpo. Kolonbiarrak, marokoarrak, boliviarrak eta ekuadortarrak dira gehienak, eta gurera etortzearen arrazoiak anitzak eta konplexuak dira. Etorkin hauetako gehienak euren bizi baldintzak hobetzera datoz, baina badira beste arrazoi batzuk: familiarekin biltzeko asmoz –familia bateratze prozesua–, arrazoi politikoak direla-eta, eta segurtasun handiagoaren bila datozenak, adibidez.

**ETORKINEK, ZAILTASUN HANDIAK**

Udaleko Ongizate Sailaren arabera, etorkinek zailtasun handiak dituzte hasierako hilabetetan. Lanpostu edo etxebizitza bat aurkitzeko, eta egoera juridiko erregularizatzeko hamaika dira oztopoak. Eta zailtasunok arintze aldera, Udalak honakoa ondorioztatu du: etorkinen gizarteratzea norabide bikoitzekoa eta dinamikoa izan behar dela. Hau da, herrialde hartzaileak –hots, guk– gaian jarrera aktiboa izan behar duela.

**AUKEA** > MOJATEGIKO KIROL INSTALAZIOAK

## Eskaintza falta ez da aitzakia izango

Aukeak pilates eta spinning ikastaroen hastapenak, eta body balance eta helduen patinaje zerbitzuak probatzea aholkatu du

**J.B.** > ARRASATE

Arrasateko Kiroldegiak denetariko kirol zerbitzuak eskaintzen ditu. Aukeak pasan den urriaren 25ean herritarrei ateak ireki zizkion zerbitzuon berri emateko, Kirol Egunean.

**IKASTARO BATZUETAN**

Aukea, baina, herritarrak erakarri nahian dabil oraindik. Hala, pilates eta spinning ikastaroen hastapenak egin nahi dituen erabiltzaileei eskaintza berezia egin die: pilates egin nahi duenak hilabete erdia ordaindu beharko du. Hala, zerbitzu horretarako beharrezkoa den hastapen ikastaro berria abiatu du Aukeak; hilaren 17, 19, 24 eta 26an izango dira, 18:30etan. Eta, bestalde, spinning ikastaroa doan izango da, azaroaren 10 eta 12an (18:00).

Bestalde, body balance egiteko ikastaro berria sortu da, eta helduen patinaje taldeak ere azaroan hasiko dira martxan. Aukeak jakinarazi du ikastaro hau familian praktikatzen dela. Izan ere, patinatzen duten haurren gurasoak dira erabiltzaile ohikoenak. Zirkuitu baten zehar patinajearen teknikak irakasten zaizkie. Skate parkean izango da ikastaroa, patinajerako leku ezin egokiagoa.

**ZERBITZUAK** > HEZKUNTZA JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

## Herriko jarduera eta zerbitzuen gaineko informazioa batuta, gidaliburuan

Irakasle, ikasle eta haien gurasoei zuzendutako gidaliburua argitaratu du Udalak, aurtengo eskaintzarekin



Kulturateko liburutegiko informazioa ere badakar gidaliburuak. JASONE ZABALA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak argitaratu du 2008-20099 ikasturteari dagokion Hezkuntza Jarduera eta Zerbitzuen gaineko gidaliburua.

Udalako Ingurumen Eskolara egun pasa joan gura dutela eskolatik? Bada gidaliburuak dakar jakin beharreko guztia. Edo aurtengo Zuhaitz Eguna noiz izango den? Bada horren gaineko xehetasunak ere aurki daitezke gidaliburuan batu dituzten jardueren artean. Guztira, bederatzi arlotan sailkatu dituzte.

Zerbitzuen atalean, berriz, musika taldeendako entsegu lokalen gaineko informazioa dakar, adibidez, edo ume etorkinendako material didaktikoan zer lantzen duen eta non eskura daitekeen ere jakinarazten du eta beste adibideren bat ipintzearren, Guraso.com izeneko zerbitzuaren gaineko informazioa helarazten du. 22 arlotan sailkatu dituzte zerbitzuak.

**UDALA** > AGURNE BARRUSO ALKATEA GOIENA TELEBISTAN

# Mizpirualde egoitza berria egitea ari dira aztertzen Udala eta Aldundia

Eraikina egiteko bi toki ari dira aztertzen eta lehentasunezko gaia da

Miguel Altuna Institutu berria egiten laster hastea da Udalaren lehentasunezko beste gaietako bat



Mizpirualde zaharren egoitza. Handitzeak izango lukeen kostu handia ikusita, berria egitea aztertzen dabil Udala. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Mizpirualde zaharren egoitza handitu beharrean berria egitea aztertzen dabiltzala esan zuen Agurne Barruso alkateak GOITBko *Magazinea* programan egindako elkarrizketan. Aurreko agintaldiaren asmoa zen egoitza handitzea, euskaltegia dagoen tokira heldu arte, baina oraingo Udal gobernua beste aukera bat ari da aztertzen: eraikin berria egitea. "Mipirualde ez dago toki oso erosoan, egoitzan dauden egoiliarren senideek ere askotan agertu dute kexa hori. Kostu aldetik, egungo egoitza handitzeak 12 milioi euro inguruko aurrekontua du, inbertsio handia da, eta diru hori berria egiten ere erabili daiteke", esan du Agurne Barruso alkateak. Gipuzkoako Aldundiarekin batera ari da gaia aztertzen. "Eraikin berria egiteko toki pare bat ditugu eskuartean, baina oraindik ez gaude ezer gehiago aurreratzeko moduan. Hala ere, lehentasuna duen gaia da hau", zehaztu du Barrusok.

Eguneko zentroaz ere hitz egin zuen alkateak GOITBko *Magazinea* programan. Laster hasiko dituzte lanak eguneko zentroa handitzeko eta bitartean, horra joaten diren bergararrak Antzuolara joango direla aurreratu zuen. "Egun hamar herritarrek erabiltzen du eguneko zentroa. Eskaria handia da eta horregatik handitu egin behar dugu. Azaroan Antzuolako Torresoroa gizarte etxera joango dira Bergarako eguneko zentrora joaten diren herritarrak", zehaztu zuen Agurne Barrusok.

**GAZTE KONTSEILUA**

Gazteriaren plana ere aurrera doala baieztatu zuen alkateak telebistan egindako elkarrizketan. "Plan horrek 0 eta 29 urte bitarteko gazteak hartuko ditu kontuan eta, normala denez, denen eskariak ez dira berdinak. Gaztetxoen artean ikusi dugu kanpora, Gasteizera batez ere, joateko ohitura badutela, herrian ez dutelako gustuko ekitaldirik aurkitzen. Euren eskari nagusia gazteleku bat egitea da eta orain horixe aztertu behar dugu. Gazte kontseilua sortuko dugu laster; Udaleko ordezkariak eta gazteak egongo dira kontseilu horretan eta lehendabiziko lana gaztelekua definitzea izango da: zeinendako eta zer egin ahal izango den bertan, adibidez", dio Barrusok. Bestalde, goiko estazioko lanak irauten duten bitartean musika taldeek Jamen entseatzeko akordioa ere lotuta dagoela esan zuen alkateak. "Jamekoak euren laguntza eskaini ziguten agintaldi hasieran, eta horren beharra orain dugula ikusita, eurengana joan gara eta akordioa adostu dugu", zehaztu zuen Barrusok.

San Antonion argi publiko gehiago jarriko dituztela ere esan zuen alkateak eta auzoetan inbertsio handiagoa ere egin behar dela aitortu zuen, nahiz eta onartu proiekturik ez dutela.

**APARKALEKU FALTA**

Aparkalekuen gainean galdetuta, alkateak erantzun zuen Udal gobernuak ez duela inoiz baztertu Seminarioan aparkalekuak egitea, "baina ikusi behar dugu nola egin. Mugikortasun plana egiten ari dira, abendurako egingo dute, eta horrek jasoko du herrian aparkalekuak non eta nola egin daitezkeen", zehaztu zuen Barrusok.Datorren urteko aurrekontuei buruz, alkateak esan zuen horretan dihardutela: "batetik 700.000 euro eman behar dizkiogu Aldundiari, eta 2009an 300.000 gutxiago jasoko dugula dakigu, baina inbertsioak egin behar ditugula uste dugu. Hain zuzen, inbertsiorik potoloena egingo dugu kanpoko igerilekua egiten; gastu arrunta da kontrolatu behar duguna".

Egubakoitzean inauguratu zuten Zabalotegiri buruz, alkateak uste du irtenbidea dela areto handiagoa egin arte. "Bitartean Udal Pilotalekua ere maiz erabiliko dugula uste dut", zehaztu zuen Agurne Barrusok.

AUDITORIUMA

## Auditoriuma Seminarioan egiteko asmoa bertan behera utzi du EAJ alderdiak

Errege Seminarioa Patronatuak erosteak aldaketak ekarri ditzakela eta, Rafael Amasorrainek EAJ alderdiaren iritzia eman zuen alkateari egindako elkarrizketan. "Seminarioa erostea ondo iruditzen zaigu, baina UNEDa Arrizuriaga joateko aukera hori aztertu egin behar dugu, ez dugu hain garbi ikusten". Bestalde, Udal gobernuak auditoriuma Miguel Altunan egiteko asmoa ere aztertu egin behar dutela esan zuen. Izan ere, EAJk bertan behera utzi du auditoriuma Errege Seminarioko elizan egiteko ideia. "Egoeraren azterketa bat egin da eta azterketa horrek erakutsi du eraikin horrek mugak dituela, arkeologikoak edo soinuari dagokionak, adibidez. Ikusi dugu baldintza asko daudela eta horregatik uste dugu auditoriuma elizan egitea ez dela aukera egokia", adierazi du Amasorrainek. Plan Orokorrari buruz, Zabalotegiko errepidea egin egin behar dela uste du oraindik EAJ alderdiak.

Aralarrek ere bere iritzia eman du gai horien inguruan. "Ondo iruditzen zaigu UNEDa Arrizuriagara joatea eta Seminarioan Udal Liburutegia eta museoa egitea. Baita auditoriuma Miguel Altunan egitea ere. Zabalotegiko errepideari buruz, aurka egoten jarraitzen dugu", esan zuen Mikel Etxanizek.

UNEDa Arrizuriagara joaten bada, Udal Liburutegia jarriko luke Udalak Seminarioan. "Kostu ekonomikoari begiratuta, 2 milioi euro inguru beharko genituzke, UNEDek obrak egiteko kalkulatu duena, eta Arrizuriaga konpontzeak ere antzerako kostua izango luke", zehaztu zuen Barrusok.

ESANAK

**"Eguneko zentrora joaten direnak Antzuolara joango dira, egoitzaren handitze obrak dirauten bitartean"**

**"Gazte kontseilua osatuko dugu laster gazteekin batera, eta egingo duen lehen gauza izango da gaztelekua definitzea"**

**Agurne Barruso** > Bergarako alkatea

**UDALA** > 2009 ZERGA ORDENANTZAK

# Zaborraren tasa eta kiroldegiko tasa %10 igoko dira datorren urtean

Uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin batera eskaintzeko erabakia hartu zuten egueneko osokoan


Urriaren 30en egindako osoko bilkurako une bat. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Hurrengo urterako zerga ordenantzak onartu zituzten urriaren 30ean egindako osoko bilkuran. Bestalde, urte berriarekin batera, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin batera egitea adostu zuten. Horren harira, Ur Kontsortzioak ur eta saneamendu azpiegituretan ia 3,3 milioi euroko inbertsioak egiteko konpromisoa hartu du. Era berean, hitzarmenaren lehen urtean 200.000 euro pasa ordainduko dizkio Udalari prima modura.

**URA %2,5 GARESTIAGO**
Gipuzkoako Ur Kontsortzioak emandako datuen arabera, 4.283 oñatiar daude alta emanda ur eta saneamendu zerbitzuan. Aldaketarekin %2,5eko igoera izango dute abonatuek.

Bestalde, hiru hilero 20 metro kubiko baino gutxiago kontsumitzen dutenek (2.672 abonatu) diru gutxiago ordainduko dute. Aldiz, 20 eta 40 metro kubiko artean kontsumitzen dutenei gehiago kobratuko diete.

Udalak eta Ur Kontsortzioak sinatuko duten hitzarmena hamar urterako izango da, eta bi aldeak ados egonez gero luzatu egingo dute.

**GAINERAKO ZERGAK**
Urriaren 16ko tokiko gobernu batzarrean onartutako berretsiz, 2009. urterako zerga ordenantzak onartu zituzten udal arduradunek. Guztiek izango dute igoera; baina, bereziki zabor tasa eta kiroldegiko tasa igoko dituzte; hain zuzen ere, biek ala biek%10eko igoera izango dute. Zaborraren kasuan urteko bigarren seihilekoan %12 eta %14 arteko igoera berria egiteko aukera dagoela esan zuten, baina ez zuten erabaki zehatzik hartu. Debagoieneko kiroldegietan erabiltzeko txartelari %5eko igoera aplikatuko diote.

Bestalde, Araotz auzoko bizilagunen eskariz, auzoan egiten diren lurperatzeak ordaindu egingo dituzte. Lurperatzaileari 62,5 euro ordainduko dizkiote.

**AZOKAKO SOTOKO POSTUAK**
Eguenean onartutako zerga batek azokako sotoan dauden satzaileei eragiten die: janari postua dutenek egunero erabiltzeagatik, 15 euro ordainduko dituzte metro kodroko eta hilero; eta zapatuetan erabiltzearren 2,20 euro kobratu diete metro koadroko eta eguneko.

Kultura etxean egiten dituzten fotokopien prezioa ez dute igo, eta Udalak kobratzen dituen gainerako zergei %4ko igoera aplikatzea onartu zuten.

**INFORMATIKA** > IKASTAROAK

# Azaroan zehar hainbat mintegi eta ikastaro egingo dituzte KZgunean

Ikastaroetan parte hartu gura dutenek izena aldez aurretik eman behar dute KZgunean, 09:00tatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Kultura etxean dagoen KZguneak hainbat mintegi eta ikastaro bat antolatu ditu azarorako. Mintegiak egun bakarrekoak, bi egunekoak eta bostekoak dira,eta ordu batekoak edo bikoak, gaiaren arabera. Era berean, ikastaroa 20 ordukoa izango da.

**HAMAR EGUNEKO IKASTAROA**
Interneteko oinarrizko ezagutzak dituztenendako gai zehatz batzuen inguruko mintegiak egingo dituzte KZgunean. Beheko taulan daude azaroan egingo dituztenak, egun eta orduekin. Bestalde, Internet erabiltzen ikasteko 20 orduko ikastaroa emango dute azaroaren 3tik 14ra eta 17tik 28ra . Ordenagailua ezagutu, nabigatu eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko aukera izango dute, besteak beste. Hamar eguneko ikastaroa goiz eta arratsaldez emango dute.

Ikastaroetan eta mintegietan parte hartu gura dutenek KZguneko bulegoan eman behar dute izena, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara arte eta 16:30etik 20:30era arte.

## KZguneko mintegiak, azaroan

| IKASTAROA | EGUNA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|
| Sinadura elektronikoa | Azaroaren 7an | 11:00-13:00 |
| Sinadura elektronikoa | Azaroaren 14an | 16:30-18:30 |
| Sinadura elektronikoa | Azaroaren 21an eta 24an | 09:00-11:00 |
| Kontsumitzailea sarean | Azaroaren 10ean | 11:00-13:00 |
| *Www.eustat.es* | Azaroaren 28an | 16:30-18:30 |
| Justizia ezagut ezazu | Azaroaren 7an | 16:30-18:30 |
| Finantzarekin lan egin I | Azaroaren 17an | 16:30-18:30 |
| Finantzarekin lan egin I | Azaroaren 18an | 16:30-18:30 |
| Bat-bateko mezularitza | Azaroaren 26an eta 27an | 18:30-20:30 |
| Sarean Lagundu | Azaroaren 7an | 17:30-18:30 |
| Komunikatu posta elektronikoaren bidez | Azaroaren 28an | 18:30-20:30 |

Iturria: Oñatiko KZgunea

**KULTURA** > BALORAZIOA

# Corpus eguneko erakusketa 5.677 bisitarik ikusi dute

Antolatzaileak gustura daude erakusketak izan duen harrerarekin

**M.B.** > OÑATI
Urriaren 26an itxi zuten Corpus eguneko prozesioaren gaineko erakusketa, eta antolatzaileek datuak eman dituzte: maiatzaren 31tik urriaren 26ra arte 5.677 lagunek bisitatu dute parrokiako klaustroan egon den erakusketa.

**EKAINEAN BISITARI GEHIEN**
Bisitariek bi bide aukeratu dituzte erakusketa ikusteko: 2.824 lagunek norbere kontura egin zuten; eta gainerako 2.853ak Turismo Bulegoak antolatutako bisita gidatuetan. Ekainean egon ziren bisitari gehien ; hain zuzen ere, 2.592 pertsona. Uztailean 314; abuztuan 629; irailean 1.270 eta urrian 982.

Udal Kultura sailak, Garapen eta Turismo Agentziak eta Sakramentu Santuaren Anaidiak antolatu dute Corpus eguneko erakusketa, Kutxa eta Ulmaren laguntzarekin.


Corpuseko erakusketa joan den astean kendu zuten. MIREIA BIKUÑA



Lau hilabete inguru eman dituzte Errosarioko Andra Mariren omenezko kapera berritzen eta txukuntzen. IKER BARANDIARAN

**ONDAREA** > HUHEZI

# Berritutako kapera areto nagusi moduan erabiliko dute hemendik aurrera

Errosarioko Andra Mariren omenezko kapera XVII. mendekoa da; erretaulak dituen irudiak, berriz, XV eta XVI mende artekoak dira

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak areto berria du joan den egubakoitzetik. Eraikineko kapera berritu dute eta hemendik aurrera, unibertsitateko areto nagusi moduan erabiliko dute.

Lau hilabete behar izan dituzte Errosarioko Andra Mariaren kapera txukun uzteko; uztailean ekin zioten lanei eta aurreko astean langileek oraindik azken ukituak ematen jarraitzen zuten. Besteak beste, erretaula berriztatu eta korua mantendu dute.

Esan bezala, bariku arratsaldean inauguratu zuten fakultateko kapera berria. Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Aditu Tituluaren azken ekitaldia egin zuten han.

**XVII. MENDEKOA**

Fakultateko Mantenu arduradun Santiago Isasmendik azaldu duenez, kapera XVII. mendekoa. Erretaulan azaltzen diren irudiak, berriz, XV eta XVI mende artekoak direla aipatu du. Kaperak ospitalearen izen bera du: Errosarioko Andra Maria. Isasmendik, horren harira, azaldu du ospitaleko eraikinarekin batera inauguratu zen, 1621. urtean. Ospitalea Juan Mondragon Askarretazabal eskoriatzarrak Perun egindako diruarekin egin zen. Hiltzear zegoela, bere seme Pedrori agindu zion Eskoriatzan ospitalea eraikitzea eta horretan Errosarioko Andra Mariren omenezko kapera egitea. Pedro bere bi seme txiki bidali zituen zeregin horretarako herrira.

## Tandemean egindako ibilbidearen gaineko hitzaldia

Abentura zale bi izango dira eguenean Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Eneko Etxebarrieta arabarrak eta Miyuki Okabe brasildarrak Hegoamerikan barrena egin duten ibilbideaz luze hitz egingo dute. Irudien bitartez, tandemean egindako bira azalduko dute eta sor daitezkeen galderei erantzungo diete. Ikusentzunezkoa 19:30ean hasiko da.




GOIENKARIA

> ESKORIATZA

### Gabonetako parkean begiraleak eta erretiratuen taberna

Gabonetako parkerako begiralea izan gura duten gazteek martitzenera arte (hilak 4) dute izena emateko aukera. Parkea abenduaren 28an, 29an eta 30ean zabalduko dute aurten. Gazteria zerbitzuan egin behar dute eskaera. Informazio gehiago gura duenak 943 71 44 07 telefonora dei dezake.

Bestalde, Olazar erretiratuen taberna ustiatzeko lehiaketa oraindik zabalik dago. Eskaerak eguena, hilak 6,baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxeko erregistro orokorrean, 10:00etatik 13:30etara bitartean.

> ARETXABALETA

### Berdintasunerako partaidetzako foroa bilduko da barikuan

Berdintasun udal zerbitzuak berdintasun diagnostikoa egiten dihardu. Horren helburua emakume eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatu eta hauek konpontzeko bideak proposatzea da. Orain arte jasotako datuak azaltzeko eta ekarpenak jasotzeko asmoz, herritarren partaidetzako foroa deitu dute barikuan, 18:00etan, Arkupen.

> ARETXABALETA

### Psikologia hitzaldia eta izarren gaineko ikastaroa gertu

Aretxabaletako Loramendi Euskara Elkarteak datozen egunotarako ekimenak jakinarazi ditu. Eguenean, hilak 6, garapen pertsonala eta psikologia transpertsonalaren gaineko hitzaldia eskainiko du Aitziber Urzelaik udaletxe zaharrean, 19:00etan. Debalde izango da. Horretaz aparte, izarren gaineko ikastaroa antolatu dute. Ilatargi astrologia elkarteak emango du zapatuan, hilak 8. Eguenera arte eman daiteke izena.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

**ELGETA** > GURASO ELKARTEAREN BATZARRA

# Batzar orokorra egingo du Guraso elkarteak etzidamu

## Ikasturteko plangintza eta balantze ekonomikoa aztertuko dituzte

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako Maala Guraso elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 5ean, eguaztena.

Maala elkarteko zuzendaritzako kide berriek 21:00etan deitu dituzte gainerako gurasoak ikasturteko lehenengo batzarra egiteko.

**ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

2008-2009 ikasturteko plangintza eta balantze ekonomikoa aurkeztuko ditu zuzendaritza berriak. Bestetik, ikasturterako aurreikusi dituzte eskolaz kanpoko ekintzak ere. Gaztaina-erre jana, Santo Tomas eguneko txistor jana, Olentzeroren etorrera, Aratusteetako txokolate-jana...

Bestelako ekintzek ere martxan ipiniko dituzte: ingeles eskolak; musika, piano, gitarra, trikiti eta pandero eskolak; domeketako zinema emanaldiak Espaloian...



Eskolaz kanpoko ekintzak antolatu dituzte aurten ere. ARTXIBOA

**LEINTZ GATZAGA**

# Herriko lursail bat erosiko du Udalak

## Leku estrategikoan dagoelako erosiko du Ignacio Goibururen ortua

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Joan zen martitzenean egindako osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak Ignacio Goibururen ortua erostea. Eusebio Villar alkateak esan zuen herrian bertan lurzorua izatea komeni zaiola Udalari, eta ortu hori leku estrategikoan dagoela, inguruko ostalaritza zerbitzuendako aparkalekuak egiteko, adibidez.

Udalbatzako kide guztiak, baina, ez ziren bat etorri esandakoarekin. Desadostasuna lursailaren prezioak eragin zuen, metro karratuak 10 euro balio izatea –ez da hiri-lurra– askotxo iruditu zitzaielako. Bozketa eginda aldeko hiru botorekin onartu zuten proposamena. Lursailaren balorazioa eginda dago, eta erosketa otsailean egiteko konpromisoa hartu zuen Udalak.

**ARAMAIO**

# Txirritola elkartearen partxis lehiaketa

## Txirripartxis lehiaketa eta Antzara Jokoa egingo dute azaroaren 14an

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Mahai-jokoak izango dira nagusi azaroaren 14an Aramaioko osoko bilkuren aretoan, 18:00etatik aurrera. Lehiaketa horren helburua da horrelako jokoetan askotan erabiltzen diren gaztelerazko esaldiak ekiditea. Hau da, esaterako, antzara jokoaren zubiaren laukira iritsiz gero honakoa esan beharko dute lehiakideek: "Zubirik-zubi noa eta urak arin naroa". Dadoen laukira iristean, berriz, ondorengoa esan beharko dute: "Dadotik dadora edo gora edo behera".

Parte-hartzaileek osoko bilkuren aretoan egon beharko dute 17:30ak baino lehen izena eman ahal izateko. Bi kategoria egongo dira, 15 urtetik gora eta behera, eta kategoriako hiru sari emango dira.

**ANTZUOLA**

# Eguazten arratsaldean udalbatzarra izango da

## Datorren urterako ordenantza fiskalen proposamenaz berba egingo dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Hilabetero moduan lehen eguaztenean, azaroaren 5ean, udalbatzarra izango da 18:00etan udaletxean.

Udalbatzarrean 2009ko ordenantza fiskalak izango dituzte berbetarako gai. Horretaz gain, etxeetan igogailua ipintzeko eta hirigintza oztopoak kentzeko dirulaguntzen oinarrien gainean ere jardungo dute. Hiri antolaketako arauetan, Sagasti auzo parean egingo duten biribilgunearen harira, egin beharreko aldaketak ere mahai gainean izango dira.

Anbulatorioko lokalaren esku aldatzea ere landuko dute. Gainera, Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordeak udal taldeen adostasunez proposamena egingo du Gizonduz programaren gainean.

LETE arraindegia
BIDEKURUTZETAN
BERGARA
Tel.: 943 76 34 51




**> FUTBOLA**
Aloñari 94. minutuan egin zioten berdinketa atzo Azkoagainen **> 16**





**> SASKIBALOIA**
MU taldearen bosgarren porrota Bilboko Mikeldiren aurka **> 19**





**> ELKARRIZKETA**
Asier Garitano Alicante taldeko entrenatzaile bergararra **> 22**


**ESKUBALOIA** > ALOÑA MENDI

# Aloña Mendiko eskubaloi saila sasoi betean dago

**BEDERATZI TALDE**
Hasi berri den denboraldirako bederatzi talde osatu ditu Aloñak

**HARROBIA**
Txikienen artean ere bada zaletasuna; laster alebin mailakoak hasiko dira entrenatzen



Ereintzako defentsa gainditu eta gero, Ander Ugarte hegaleko jokalaria jaurtiketa egiten. Aloñak galdu egin zuen zapatuan Ereintzaren aurka. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloi saila sasoi onean dago. Bederatzi talde osatu dituzte oñatiarrek hasi berri den denboraldirako; guztira, 160 fitxa atera dituzte maila ezberdinetan. Aita izan berri den Karmelo Guridik Mikel Mantxolari utzi dio presidente-lekukoa aurten. 1976. urtean jarri zuten abian Aloñako eskubaloi saila eta urte horien guztien ondoren, harrobi bikainari eusten diote. Horren lekuko, txikienen mailan, infantil mailan, hiru talde atera dituzte, bi neskenak eta bestea mutikoena. Hori gutxi balitz, alebin mailakoak entrenatzen hasiko da aurki Iñaki Cantero entrenatzaile beteranoa, taldearen ibilbidea ederki asko ezagutzen duena.

**SENIOR MAILAKOAK ETXEAN**

Senior mailako bi taldeek etxean jokatu dute oraingo aste bukaeran: Verkol Aloña nesken taldeak 24-18ko emaitzarekin irabazi zion egubakoitzean Bera Bera talde donostiarrari. Orain arte jokatutako bi partiduak irabazi ditu Aloñak; aurreko astean Elorrion (9-33) eta egubakoitzean Zubikoan, Bera Berari. Taldeko jokalaria eta, aldi berean, entrenatzailea da Ainhoa Unamuno bergararra. Aloñaren helburua Euskadiko Ligarako igoera lortzea da, iaz galdutako mailara hain zuzen.

Senior mutilek, aldiz, egun beltza izan zuten zapatuan. Liga hasiera bikaina egin dute Pablo Garciaren mutilek, aurreneko lau partiduak irabazita. Bosgarrenarekin ezin. Ligako faboritoetako bat den Ereintza izan zuten bisitari zapatu eguerdian Zubikoan eta errenteriarrak nagusitu ziren, erraz gainera: 19-28. Lehen maila territorialean jokatutako bospasei jokalari ekarri zituen Ereintzak eta etxekoek emandako erraztasunen aurrean ez zuten barkatu. Garcia ez zegoen batere pozik bere taldeak kantxan erakutsitakoarekin. "Ez dugu ezertan asmatu gaur eta ez dago aitzakiarik". Edozelan ere, bigarren territorialeko ligan faboritoetako bat da Aloña, Ereintzarekin eta Elgoibarrekin batera. Datorren astean Elgoibarri bisita egingo dio Aloñak. Garciaren hitzetan, "ez dugu igoera lortzeko inolako presiorik eta ahalik eta partidu gehien irabaztea da gure asmo bakarra. 12 talde gara ligan eta buruan daukadan helburua zera da: 18 partidu irabaztea".

**GAZTETXOEN PARTIDUAK**

Jokalari gaztetxoen jokoarekin gozatzeko aukera ere izan dute Zubikoara hurbildutako zaleek. kadete mailan, Berezao Aloñak 39-26 irabazi zion zapatu goizean Zumaiako Pulpo taldeari. Joxe Garciak eta Aitor Aranburuk zuzentzen duten taldeak aise eskuratu zituen bi puntuak; gazte mailako mutilek, aldiz, 27-25 galdu zuten Usurbilen. Francisco Benito da taldeko entrenatzailea.

**EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN**

Kadete eta gazte mailako nesken taldeek Euskadiko Ligan dihardute; Cantero da kadeteen entrenatzailea eta *Peko* eta Erik Fuentes gazte mailakoena.Euskadiko selekzioko kontzentrazioa zela eta ez da jardunaldirik izan. Gazte mailako Goreti Ibabe atezaina eta Ane Herrero arrasatearra (Aloñan ibilitakoa, Bera Beran gaur) deitu dituzte kontzentraziora.

Aitor Mantxola Aloñako presidentearen arabera, babesleen eta gurasoen laguntza ezinbestekoa da Oñatiko eskubaloia aurrera ateratzeko. Zaletasuna suspertzen jarraitzea da helburua. Bolada onari eutsi diezaiotela.



Erika Arteaga gol jaurtiketa egiten, egubakoitzeko Aloña-Bera Bera partiduan. J.A.

## Zubikoa, gaztetxoen eta Asobaleko izarren topaleku

Harrobirako estimu handia erakusten duen taldea da Aloña. Laster 11-12 urteko neska-mutikoak hasiko dira entrenatzen Zubikoan, astelehenero. Era berean, jokalari gaztetxoen topaleku izango da berriro Oñati datorren urteko ekainean. Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Euskal Selekzioko 160 neska-mutiko inguru elkartuko dira Oñatin udan, III. Korpus Txapelketan. Aurretik, baina, goi mailako eskubaloia ekarriko dute Aloñakoek Zubikoari. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Asobal Ligako bi talde izango dira aurrez aurre. Datorren urtarrilaren 17an izango da hitzordua, ligako geldialdia aprobetxatuz. Ziurrenik, Espainiako hautatzaile izandako Juan Carlos Pastorrek zuzentzen duen Valladolid taldea eta Arrate izango da aurrez aurre Oñatin.

**PREFERENTEA** > ALOÑA-EHU VASCONIA

# Azken minutuetan eusten ez jakitearren berdindutako lehia

ALOÑA MENDI
**1-1**
EHU VASCONIA

**Aloña** > Oier Zabaleta, Xabi Elgarresta, Jon Igartua, Roberto Idigoras, Aritz Garmendia, Mikel Palacios, Unai Arregi (Iñigo Arregi, 70.min), Axier Ugarte (Ioritz, 91. min), Lopez, Carpintero, Maiztegi.

**EHU Vasconia** > Urreta, Mateos, Acosta, Barrio (Eneko, 85.min), Ekaitz (Navarro, 77. min), Amunarriz (Dani, 57.min), Otamendi, Alex (Harri, 85. min), Ibañez (Hamed, 70. min), Gomez, Casillas.



**UR MORDOA** Xabi Elgarresta urez betetako zelaian, eta Vasconiako jokalarien presiopean. JOSETXO ARANTZABAL

**X.U** > BERGARA

Partidua galdu izan balute moduan erretiratu ziren zale oñatiarrak atzo etxera. Izan ere, bigarren zatian 1-0ekoa egin eta gero (Unai Arregi) Vasconiak luzapenean egin zuen berdinketaren gola, 94. minutuan zorrotzagoak izateko. Eta egoera gehiago aldrebesteko, Vasconiak 10 jokalarirekin lortu zuen emaitza berdintzea.

**EURI ZAPARRADA**

Bota zuen euriak dezente baldintzatu zuen norgehiagoka, ur mordoa zegoelako berdegunean –eskerrak belar artifiziala den–. Lehenengo zatian bi taldeetako inor ez zen baloiaren jabe izan, eta ez zen gol aukera garbirik egon; egiten zuen giroarekin, sufrikario handiegia ikusleendako.

Bigarren zatian, berriz, Aloñako erdilariak euren zona zein zen zehaztu eta agintari lanetan hasi ziren. Orduan etorri ziren etxekoen aldeko gol aukerak. Hala, 67. minutuan Idigorasek jokaldi polita egin zuen eskuin hegaletik, eta atzera pasea eman-da, Arregik nahikoa izan zuen baloiari bultza egitea sare artera bidaltzeko (1-0).

Eginda zegoen zailena, hortik aurrera nahikoa zen partidua moteltzea. Eta, giroak lagundu egiten zuen, gainera. Hori gutxi balitz, partidua amaitzeko hamar minuturen faltan Vasconiako Casillasek bigarren txartel horia ikusi eta aldagelarako bidea hartu zuen. Orduan mantendu behar zuen Aloñak burua hotz, eta kalerik ez egin. Baina kontrakoa egin zuten: Igartuak galdu behar ez diren balio horietako bat galdu zuen, eta ondoren egin zuen faltagatik kaleratu egin zuen epaileak. Ondorengo falta jaurtiketan, 94. minutuan, Aloñako atezain Zabaletak ez zuen irteeran asmatu, eta baloia *jan* zuen (1-1).

**PREFERENTEA** > ARETXABALETA-ZUMAIAKO

# Espinosak luzapenean egin zuen garaipenaren gola

ARETXABALETA
**1-0**
ZUMAIAKO



**KAPITAIN** Aritz Igartua, Zumaiako kontrarioa estutzen dabilela. JOSETXO ARANTZABAL

**X.U** > BERGARA

Hiru puntu balio izan zituen gola egin zuen Espinosak atzo, luzapeneko 92. minutuan –epaileak 97. minutura arte itxaron zuen norgehiagokaren amaiera adierazteko–. Eta, urrezko gol horrek balio handiko puntuak emateарekin batera, ekarpen gehiago egin zizkion Aretxabaletako taldeari: batetik, etxean jokatutako aurreko hiru partiduetan UDAk ez zuen irabazi, eta bolada txar hori eten zuten; bestetik, Arenazak onartu moduan, garaipen horrek balio izan du jakiteko UDAk aurten ze helburugatik egin behar duen lan: "Orain sailkapeneko lehenengo postuetan gaude, eta Tolosak galduta estutu egin da dena. Lehenengo bost postu horietan egoteko borrokatu behar gara".

**MEREZITAKO GARAIPENA**

Lehenengo zatian apenas egon zen gol aukera garbirik. Zelaia oso azkar zegoen, eta baloia ondo kontrolatzea ez zen batere erraza. Bigarren zatian, baina, aretxabaletarrek jokoa gehiago ireki eta hegaletatik jokaldi arriskutsuak egiten hasi ziren. Hala, hainbat gol aukera garbi izan eta gero 92. minutuan egin zuen Espinosak horrenbeste esperotako gola.

**PREFERENTEA**

# Zigor handiegia jaso zuen Mondrak

**X.U.** > BERGARA

Norgehiagoka bat galtzeko moduak eta moduak daude, eta zapatuko partidua amaitzerakoan, markagailuak 0-1 erakusten zuela Mojategiko zaleek txaloka agurtu zuten Mondra. Detaile esanguratsua da hori, izan ere, Mondrak markagailuak islatzen ez duen partidua egin zuen Real Unionen kontra. "Galdu arren, orain arteko partidu onena jokatu dugula esango nuke. Gainera, asko eskertzen ditugu txalo horiek", adierazi zuen Andoni Azkargortak.

Sailkapenean aurrean dagoen taldea bada ere, Real Union goitik behera menderatu zuen Mondrak, batez ere lehenengo zatian. Real Unionek, baina, Mondrak defentsan egindako hutsegite bakarra aprobetxatu zuen 0-1ekoa egiteko (Mohamed).

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Tolosa** | **18** | 8 |
| 2. **Hondarribia** | **16** | 8 |
| 3. **Pasajes** | **16** | 8 |
| 4. **Real Union** | **15** | 8 |
| 5. **Aretxabaleta** | **14** | 8 |
| 6. **Idiazabal** | **14** | 8 |
| 7. **Trintxerpe** | **13** | 8 |
| 8. **Hernani** | **12** | 8 |
| 9. **Zumaiako** | **12** | 8 |
| 10. **Aloña Mendi** | **11** | 8 |
| 11. **Berio** | **11** | 8 |
| 12. **Ondarroako Aur.** | **9** | 8 |
| 13. **Mondra** | **8** | 8 |
| 14. **Euskalduna** | **8** | 8 |
| 15. **Astig. Mundarro** | **6** | 8 |
| 16. **EHU Vasconia** | **5** | 8 |
| 17. **Anaitasuna** | **4** | 8 |
| 18. **Amaikak Bat** | **3** | 8 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Berio-Pasajes | 1-1 |
| Aloña Mendi-EHU Vasconia | 1-1 |
| Mondra-Real Union | 0-1 |
| Tolosa-Hondarribia | 0-3 |
| Astig.Mundarro-Ondarroako Aurrera | 0-0 |
| Idiazabal-Amaikak Bat | 3-1 |
| Aretxabaleta-Zumaiako | 1-0 |
| Euskalduna-Hernani | 2-2 |
| Trintxerpe-Anaitasuna | 4-1 |

**Hurrengoak**

- Anaitasuna-Pasajes
- EHU Vasconia-Berio
- Real Union-Aloña Mendi
- Hondarribia-Mondra
- Ondarroako Aurrera-Tolosa
- Amaikak Bat-Astig. Mundarro
- Zumaiako-Idiazabal
- Hernani-Aretxabaleta
- Trintxerpe-Euskalduna

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Antzuola-BTLS | 5-1 |
| Lagun Onak-Aretxabaleta | 2-2 |
| Anaitasuna-Mondra | 0-1 |
| Bergara-Ilintxa | 2-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-Bergara | 2-3 |

**GAZTE MAILAKO EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| San Ignacio-Bergara | 1-4 |
| Abetxuko-Aretxabaleta | 1-3 |

**OHOREZKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Ondarroako Aurrera-Aloña Mendi | 1-1 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Soraluze-Aretx.Arizmendi B | 2-4 |
| Mondra-Elgoibar | 0-3 |
| Bergara-Ilintxa | 1-4 |

**OHOREZKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Beasain-Arrasate | 1-0 |
| Aloña Mendi-Urola | 3-0 |
| Aretx.Arizmendi-Ordizia | 2-2 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Bergara | 6-3 |
| Arizmendi-Urki | 0-7 |

**OHOREZKO INFANTILAK**

| | |
|---|---|
| Tolosa-Bergara | 6-0 |

**EMAKUMEZKOEN LIGA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak Eibar-Aloña Mendi | 3-0 |
| Arizmendi-ArizmendiB | 0-1 |

**EMAKUMEZKOEN F-8**

| | |
|---|---|
| Ordizia-Aloña Mendi | 0-4 |


Zer? Ez zinen gogoratzen ikastetxeko gastuak zetozela?
GESTIPLANek ohartaraziko dizu
Azkenean, hona hemen era erosoa eta erraza familiako ekonomia kudeatzeko: **GESTIPLAN**.
Zerbitzu berri honek **familiako gastu guztiak planifikatzen eta kontrolatzen lagunduko dizu**. Zehazki esango dizu zenbat eta zertan gastatzen duzun, **eta hileko kuota bakarra** kalkulatuko dizu urteko gastu guztiei aurre egiteko, nahiz eta hil batean handiak izan eta hurrengoan txikiagoak.
Honela, zeure etxeko ekonomian oreka handiagoa lortzeaz gain, aukera berriak aurkituko dituzu zeure diruarentzat.
Proba ezazu Kutxanet-en!
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa




ESKAINTZA PAREGABEA

**Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.**

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan: **3.300€** (BEZ kanpo).

\+

**KREDIGAS**
**finantziazio berezia,** instalazioa hileko kuota erosotan finantzatzeko.

\+

**570 €** ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

**902 123 456 Telefono Urdina**
www.naturgasenergia.com

naturgas energia

**SASKIBALOIA** > LEHEN NAZIONAL MAILA

# MUk zulotik ezin aterata jarraitzen du

Ligako bosgarren porrota arrasatearrendako, Bilboko Mikeldi taldearen aurka, Iturripen

Lehen zatian ondo ibili ziren etxekoak, baina behera etorri ziren azken laurdenean

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**88-96**
MIKELDI

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Zaleen babesa eskatu zuten Ointxe saskibaloi elkarteko arduradunek, MU taldeak ligako lehen garaipena lortzeko helburuarekin. Baina Iturripen batutako jendearen animuak eta jokalarien ahalegina ez ziren nahikoa gertatu zapatuan Iturripen: etxekoek 88-96 galdu zuten Bilboko Centro de Estudios Mikeldi taldearen aurka .

Javi Zurbanoren jokalariek ahal zuten guztia egin zuten bi puntuak eskuratzeko, baina badirudi konfiantza faltarekin dabiltzala arrasatearrak. Aurreko lau partiduak galdu izanak zerikusia izango du horretan. Zapatuan aukera ona zeukaten lehen garaipena lortzeko, Mikeldi bilbotarrak arrasatearren pareko ibilbidea zeramatelako. Viajes Marfil edo Urdaneta moduko taldeek beste *liga bat* jokatzen dute, eta MUk Mikeldi edo Suelbat taldeen aurka ezin du hutsik egin. Zapatuan bisitari izan zuten Mikeldi taldea garaipena lortzeke etorri zen Arrasatera.Talde bietako batek lehen partidua irabaziko zuen; zoritxarrez, partidua amaitu ondoren, MUk ligako azken postuan jarraitzen du.

**ETXEKOAK NAGUSI HASIERAN**

Etxeko taldeak gogoz ekin zion partiduari, jokoan ziren bi puntuen garrantziaz ohartuta. Lehenbiziko laurdenean arrasatearrak izan genituen aurretik; markagailuan nagusi ziren Zurbanoren jokalariak, nahiz eta aldea murritza izan (gehienez sei puntukoa). 26-22ko emaitzarekin amaitu zen lehen laurdena eta bigarrenean aldea hiru puntutan gutxitu zuten bilbotarrek (44-43).

Lehenbiziko garaipena eskura zuten MUkoek baina sufritu beharra zegoen, Mikeldi ez zegoelako gertu amore emateko. Poliki-poliki etxekoak behera eta bilbotarrak gora etorri ziren. Partidua irabazteko eta, aldi berean, bosgarren porrota izateko beldurrez ziren etxekoak. MUkoek konfiantza falta nabarmena erakutsi zuten eta Mikeldikoak azkar ohartu ziren horretaz. Ordura arteko baino portzentaje hobeak lortu zituzten jaurtiketetan eta errebotetan euren nagusitasuna azaldu zuten. Bilbotarren altuera handiagoa erabakigarria gertatu zen azken minutuetan. Azken laurdenean lortutako aldeari eutsi zioten bilbotarrek eta hasieran uste baino errazago eskuratu zuten bi puntuak. Urrezko bi puntuak. Lehen garaipena Zornotzan saiatuko da lortzen MU.



Irudian MUko jokalari bat saskira jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

> MENDIA

### Besaide elkarteak azarorako irteerak iragarri ditu

Arrasateko Besaide Mendizaleen Elkartearen eskutik, bi irteera izango dira azaroan. Lehenbiziko datorren domekan, azaroaren 9an, egingo dute: Urkiela-Arrietabaso-Mañaria izango da ibilbidea. Irteera goizeko 7:30ean izango da eta izenematea gaur, astelehena, bihar eta etzi egin ahal izango da Besaideko egoitzan, 19:30etik 20:30ak bitartean.

Hurrengo irteera azaroaren 23an egingo dute. Galarreta-Malkorra-Arantzazu da ordurako aukeratu duten ibilbidea. Izenematea azaroaren 17an zabalduko dute.

> TXIRRINDULARITZA

### Pedalaren Eguna Bergaran, azaroaren 22an

Lokatza Ziklismo Eskolak Pedalaren Eguna ospatuko du datorren azaroaren 22an. Lokatzaren sorreratik hona taldean ibilitako txirrindulariak eta zuzendariak batu nahi dituzte egun horretan, afari baten. Herriko txirrinduzaleen artean zabaldu dute deia. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, afarira joan nahi duten guztiek 25 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxan, azaroaren 15a baino lehen. Argibide gehiago *lokatza_ze@hotmail.com* helbidean edo 649 69 33 02 telefonoan.

**ERRUGBIA** > ARRASATE-KAKARRALDO

# Azken orduan irabazi zuen Arrasatek atzo

Markagailuan zazpinako berdinketa zela, Iban Agirreurretak entsegua egin zuen amaieran

**E.M.** > ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeak sailkapeneko bigarren postuari eusten dio, atzo eguerdian, Mojategin, Mungiako Kakarraldo taldeari 14-7ko emaitzarekin nagusitu eta gero. Partidua bukatzear zela lortu zuten etxekoak garaipena: markagailuan zazpinako berdinketa zela, Iban Agirreurretak entsegua lortu zuen (bost tanto) eta jarraian Unai Lazkanok asmatu egin zuen makiletara egindako jaurtiketarekin (bi tanto). Euripean, Mojategin batutako ikusleek euren taldearen garaipena ospatu ahal izan zuten bukaeran. Ligan ibilbide sendoa darama Igor Isasik zuzentzen duen taldeak: jokatutako bost partidueitatik hiru irabazi dituzte eta sailkapenean Bera Bera liderra daukate aurretik bakarrik.

**HIRUGARREN GARAIPENA**

Atzoko partiduan 7-0 aurreratu ziren etxekoak, Igor Erañaren entseguari eta Unai Lazkanoren jaurtiketari esker. Hala ere, bigarren zatian berdindu egin zuten bizkaitarrek. Etxekoek ez zuten etsi eta aurrealdean bikain ibili ziren atzo. Agirreurreta izan zen onenenetakoa Mojategin. Berak egin zuen entsegu erabakigarria. Emoziorik ez zen falta izan atzo.

**HIRUGARREN GARAIPENA**

Arrasatearren multzoan, beste bost talde dira Euskadiko Ligan lehiatzen: Bera Bera, Construcciones Rivago, Elorrio, Arratiko Zekorrak eta atzo bisitari izan zuten Kakarraldo. Arrasatek, etxean, Arratiko Zekorrak eta Kakarraldo hartu ditu mendean eta ligako lehen partiduan etxetik kanpora lortu zuen lehen garaipena, Elorrion. Aldiz, Bera Bera eta Santanderreko Construcciones Rivagoren aurka galdu egin dute arrasatearrek.


Euria izan zen atzoko protagonistetako bat. Irudian, arrasatearrak eta mungiarrak baloia eskuratzeko borrokan. J. ARANTZABAL




Driss Ben Saidek (0:31:37) bi segundoko tartea atera zion bigarren sailkatu Bernard Mwangi Keniarrari. JOSETXO ARANTZABAL




130 neska-mutikok hartu zuten esku gaztetxoen lasterketetan. JOSETXO ARANTZABAL




Asier Osinaga eta Joxu Arana, Osintxun. XABIER URTZELAI

Driss Ben Said da Soraluze Bergara krosa birritan irabazi duen lasterkari bakarra

Emakumezkotan Tabitha Wambui ez zuen kontrariorik izan

Ibarrekoen artean, Ritxar Fernandez eta Itziar Aldekoa izan ziren azkarrenak

**ATLETISMOA** > 4. SERVIMASA SORALUZE-BERGARA KROSA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

# Driss Ben Said aurten ere azkarrena izan da

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Soraluze-Bergara krosa ez da Behobia-Donostia. Eta Fraiskozuri ez da Donostiako Boulebarda, baina zapatuan sekulako giroa zegoen Bergarako helmugan, Driss Ben Saidek zinta apurtu zuenean. Iazko probarekin alderatuta, hori da aurtengoak izan duen gauza positiboetako bat, hau da, herritar asko batu zela helmugan, krosean izan ziren 323 korrikalariak animatzen.

Gauzak diren moduan, kros biribila izan zen. Aste osoan eguraldi txarra izan eta gero, zapatuan zeruak tregoa eman, eta 323 korrikalari batu ziren Soraluzeko erdigunean, proba hasteko gertu. Hor, antolatzaileen aurreikuspenak txiki geratu ziren, eta izenak hartzen Antxintxikako koadrila polita ibili bazen ere, lan asko denbora tarte txikian egiteko. Horrenbestez, krosaren hasiera hamar minutu atzeratu behar izan zuten (17:10).

**SORALUZEN, HERRIAN BERTAN**

Aurreko edizioekin alderatuta, zapatuan lasterkariek Soraluze-

ATLETEN ESANAK



**Driss Ben Said**
Maroko

"Entrenamendu saio modura hartu dut lasterketa, eta egia esateko, oso gustura geratu naiz iazko postua errepikatu dudalako. Ez, proba ez zait gogorra egin".



**Tabitha Wambui**
Kenya

"Goizean Orioko krosa irabazi dut, eta arratsaldean entrenamendu saio bat egiteko asmoa banuen ere, hemen korritzea erabaki dut. Egun biribila izan da".



**Ritxar Fernandez**
Oñati

"Asfalto gainean korrika egin dugun bitartean aurrean ibili naiz, baina pistan sartu garenean putzuak... hor egin dut atzera. Baina, oso gustora geratu naiz".



**Gurutz Larrea**
Antzuola

"Ziklismoa utzi dudan arren ezin naiz geldi egon, eta korrika apur bat egitera etorri gara. Luzea egin zait proba; korrikan bizikletan baino gehiago sufritzen da".



**Aitor Rementeria**
Bergara

"Antolatzaileok datorren urtean parte-hartzeari dagokionez aurreikuspen handiagoak egingo ditugu. Jende mordoa etorri da, eta eguraldiak lagundu egin du".




Antolatzaile bat lasterkariari txipa kentzen. JOSETXO ARANTZABAL

ko erdigunean hasi zuten proba. Lehenengo metroetan maldaren bat edo beste gainditu behar izan bazuten ere, industrialdean hastea baino askoz ere ikusgarriagoa izan zen korrikalariak Soraluzeko kaletan barrena ibiltzea.

Behin trenbide zaharrera iritsita, hamar-hamabi korrikalariz osatutako taldeak aurrera egin zuen. Talde hori, baina, ez zen bere horretan Osintxura iritsi. Ritxar Fernandez ahalegindu zen behin baino gehiagotan taldeko erritmoa ezartzen, baita beste korrikalari batzuk ere, baina Afrikatik etorritako korrikalari marokoarrak eta baita kenyarrak zain ziren, ihesaldi saiakerak egin barik, zain. Trenbide zaharra Osintxuraino dago asfaltatuta, eta hortik aurrera Oñatiko lasterkari Ritxar Fernandezek –lehen debagoiendarra– zailtasunak izan zituen. Ritxar baino lehenago Bergarako Arkaitz Ruiz de Loizaga geratu zen atzean –zazpigarrena helmugan–, eta Bergarara iritsita Juanjo Igarzabalek eman zuen amore. Hala, bost laguneko taldea geratu zen lasterketa buruan, bostak afrikarrak. Hala, Fraiskozurin zegoen helmuga ikusita, korrikalariek arratsaldeko lehenengo esprinta jo zuten, jakin barik, oraindik Bergarako kaleetan zehar itzuli bat egin behar zutela. Ukondoko bat baino gehiago izan zen hor, eta proba amaiera ez zela ikusita, korrikalariek ahal zuten moduan egin zuten azken itzulia –marokoar bat erretiratu egin zen, esprintean dena emanda–. Hala, bigarren esprintean, benetakoan, iazko irabazle Driss Bensaidek ez zuen barkatu.

AIPATZEKOAK

**> 130 NESKA-MUTIKO BERGARAN EGINDAKO LASTERKETETAN**
Nagusien krosa hasi aurretik, 16:00etan hasita gaztetxoen lasterketak egin zituzten, Kirol Eskola barruan. 130 neska-mutikok hartu zuten parte lasterketetan, gehienak Bergarako ikastetxetako ikasleak.

**> LASTERKETA DATUTAN**
Hauek dira zapatuko probak utzitako datu batzuk: 1.500 ur botila zituzten antolatzaileek gertu, eta 50 litro Coca-Cola. Lasterketa amaieran 100 txorizo prestatu zituzten helmuga ondoko karpan, eta 30 ogi barra. Horrekin batera, antolatzaileek korrikalarien eta proban laguntzaile lanetan ibili zirenen artean 450 kamiseta banatu zituzten

**> INOIZKO PARTE HARTZE HANDIENA**
Zapatuan 323 lagunek hartu zuten esku Soraluze-Bergara krosean, eta hamar kilometroko korrikaldia eta gero, 253 iritsi ziren helmugara.

**> HAMAR MINUTUKO ATZERAPENA**
Aste barruan antolatzaileek ehun lagun pasatxoren izen-abizenak zituzten, baina zapatu arratsaldean berrehun lagunek eman zuten izena, eta proba 10 minutuz atzeratu behar izan zuten.

## Servimasa Soraluze-Bergara kroseko sailkapena

**GIZONEZKOAK**

| Post. | Izen-abizena. herria. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Adriss Ben Said, Bilbao | 00:31:37 |
| 2. | Bernard Mwangi, Durango | 00:31:39 |
| 3. | Aima Bouziane, Bilbao | 00:31:54 |
| 4. | Mohammad Elguarrah | 00:32:11 |
| 5. | Juanjo Igarzabal, Zumarraga | 00:32:14 |
| 6. | Ritxar Fernandez Alcala, Oñati | 00:32:43 |
| 7. | Arkaitz Ruiz De Loizaga, Bergara | 00:33:45 |
| 8. | Aitor Arranz Elgea, Gasteiz | 00:33:54 |
| 9. | Miguel Angel Encina Perez De Bili. | 00:34:05 |
| 10. | Gaizka Romero Azkarate, Oñati | 00:34:36 |
| 11. | Iker Larrea Soraluze, Antzuola | 00:34:59 |
| 12. | Jaime Osa, Zumaia | 00:35:00 |
| 13. | Iñigo Lariz Azkue, Elgoibar | 00:35:24 |
| 14. | Bittor San Jose Garcia, Aretxabaleta | 00:35:24 |
| 15. | Sergio Muñoz, Ermua | 00:35:27 |
| 16. | Asier Osinaga Beitia, Oñati | 00:35:35 |
| 17. | Santiago Fuertes Ferreras, Ermua | 00:36:03 |
| 18. | Jose Antonio Akizu Barr. Bergara | 00:36:14 |
| 19. | Javier Irazabal Arrieta, Elgeta | 00:36:23 |
| 20. | Eduardo Moreno Castelo, Bergara | 00:36:25 |
| 21. | Joseba Blazquez Belou, Oñati | 00:36:29 |
| 22. | Martxel Bermudez Ruiz, Irun | 00:36:30 |
| 23. | Ramon Varela, Oñati | 00:36:34 |
| 24. | Gorka Bizkarra Etxegibel, Mañaria | 00:36:38 |
| 25. | Jose Carlos Garcia Caceres, Ermua | 00:36:43 |
| 26. | Joxu Arana Oregui, Bergara | 00:36:46 |
| 27. | Basilio Aranburu Mugica, Bergara | 00:36:50 |
| 28. | Zigor Esnaola Garaizabal, Soraluze | 00:36:50 |
| 29. | Iñigo Olañeta Elexpuru, Bergara | 00:36:56 |
| 30. | Jon Otermin Zelaia, Urretxu | 00:36:58 |
| 31. | Iñaki Mujika Goikoetxea, Bergara | 00:37:09 |
| 32. | Aitor García Kerejazu, Gasteiz | 00:37:09 |
| 33. | Roberto Garcia Herrero, Eibar | 00:37:13 |
| 34. | Alberto Calderon del Val. Soraluze | 00:37:23 |
| 35. | Martin Berrizbema Zuazagasti | 00:37:31 |
| 36. | Iker Sarabia Ugarte, Arrasate | 00:37:31 |
| 37. | Iñigo Pagaldai Urresti, Bergara | 00:37:35 |
| 38. | Joxemari Gallastegi Etx. Arrasate | 00:37:59 |
| 39. | Javi Ibarra Moñuxx, Bergara | 00:38:07 |
| 40. | Alberto Ozaeta Mendi. Arrasate | 00:38:08 |
| 41. | Jose Luis Barrena Arregui, Oñati | 00:38:08 |
| 42. | Iban Uribetxebarria Leg. Eskoriatza | 00:38:13 |
| 43. | Adur Juaristi, Deba | 00:38:19 |
| 44. | Niko Belerra Gonzalez | 00:38:24 |
| 45. | Gorka Eraña, Bergara | 00:38:25 |
| 46. | Xabier Garitano Gaminde, Bergara | 00:38:29 |
| 47. | Ion Mujica Ararama, Billabona | 00:38:30 |
| 48. | Aitor Eraña, Bergara | 00:38:33 |
| 49. | Sergio Perez, Bergara | 00:38:37 |
| 50. | Xabier Lijo Perez, Bergara | 00:38:44 |
| 51. | Alain Kapelastegui Ormaza, Elorrio | 00:38:59 |
| 52. | Martin Dominguez, Elgoibar | 00:39:32 |
| 53. | Eduardo Talan Molina, Eibar | 00:39:33 |
| 54. | Aritz Barrutiabengoa | 00:39:39 |
| 55. | Gurutz Larrea Soraluze, Antzuola | 00:39:44 |
| 56. | Aitor Larrea, Bergara | 00:39:44 |
| 57. | Ismael Vazquez, Bergara | 00:39:45 |
| 58. | Javier Fernandez D. Elgoibar | 00:39:52 |
| 59. | Francisco Javier Abio Astig. Eibar | 00:39:59 |
| 60. | Mariano Lopez, Elgoibar | 00:40:03 |
| 61. | Ibon Etxabe Zulaika, Zarautz | 00:40:23 |
| 62. | Jon Gurutz Alberdi M. Antzuola | 00:40:38 |
| 63. | Juan Luis Gallastegi Arr. Bergara | 00:40:40 |
| 64. | Luis Miguel Cano Vicente, Oñati | 00:41:03 |
| 65. | Xabier Luis Urzelai, Oñati | 00:41:03 |
| 66. | Igor Aguirrezabal ,Angiozar | 00:41:07 |
| 67. | Jon Aranguren Fernandez, Antzuola | 00:41:08 |
| 68. | Alvaro Gomez, Zizurkil | 00:41:08 |
| 69. | Mikel Alberdi, Bilbo | 00:41:12 |
| 70. | Juan Jose Malvar Grande, Eibar | 00:41:12 |
| 71. | Oscar Malvar | 00:41:18 |
| 72. | Xabier Gallastegi Gabilondo, Elorrio | 00:41:19 |
| 73. | Igor Arrese, Oñati | 00:41:22 |
| 74. | Jesus Mari Beristain Elezg. Elgeta | 00:41:27 |
| 75. | Igor Fernandez Gamazo, Eibar | 00:41:30 |
| 76. | Josu Lete Aranburu, Bergara | 00:41:34 |
| 77. | Ramon Gorostidi Arriola, Bergara | 00:41:35 |
| 78. | Juan Bragado, Berriz | 00:41:36 |
| 79. | Jesus Diaz Roman, Bergara | 00:41:40 |
| 80. | Gaizka Zubizarreta El. Eskoriatza | 00:41:40 |
| 81. | Camilo Muñoz Peñas, Ermua | 00:41:56 |
| 82. | Iñigo Regueiro Alonso, Oñati | 00:42:06 |
| 83. | Alberto Seijas Casado, Elgoibar | 00:42:10 |
| 84. | Felix Terrazas Apellaniz, Bergara | 00:42:15 |
| 85. | Joxe Pedrosa Rodriguez, Arrasate | 00:42:17 |
| 86. | Jesus Egino Zabaleta, Bergara | 00:42:18 |
| 87. | Txema Aragones Rebollo, Bergara | 00:42:23 |
| 88. | Txomin Galllastegi Etxeb. Arrasate | 00:42:23 |
| 89. | Txema Gomez, Zarautz | 00:42:32 |
| 90. | Gaizka Aranburu Eraña, Oñati | 00:42:36 |
| 91. | Miguel Angel Igartua Urtz. Oñati | 00:42:36 |
| 92. | Markel Fernandez Belastegi | 00:42:45 |
| 93. | Patxi Gonzalez Mar. Zumarraga | 00:42:45 |
| 94. | Oscar Velarde Bernal, Antzuola | 00:42:46 |
| 95. | Eneko Lazkano Bikendi, Bergara | 00:42:46 |
| 96. | David Anso Muñoz, Arrasate | 00:42:47 |
| 97. | Iñigo Trocaola Ibarlucea, Eibar | 00:42:50 |
| 98. | Gorka Marzan, Angiozar | 00:42:53 |
| 99. | Josu Arabaolaza Zubillag. Arrasate | 00:42:56 |
| 100. | Celestino Fernandez, Elorrio | 00:42:57 |
| 101. | Antton Barrutia Ibarrola, Bergara | 00:43:04 |
| 102. | Raul Mendiaraz Atxa, Arrasate | 00:43:09 |
| 103. | Gorka Areitio Asurabar. Bergara | 00:43:10 |
| 104. | Jesus Grande, Zumarraga | 00:43:14 |
| 105. | Julian Ibarzabal, Azpeitia | 00:43:23 |
| 106. | Markel Elorza Heriz, Arrasate | 00:43:26 |
| 107. | Asier Aguirre, Arrasate | 00:43:37 |
| 108. | Aitor Pagaldai Urresti, Bergara | 00:43:38 |
| 109. | Jonathan Unzalu Rincon, Aramaio | 00:43:39 |
| 110. | Iñigo Alberdi Etxebarria. Markina | 00:43:40 |
| 111. | Gorka Larrañaga, Bergara | 00:43:41 |
| 112. | Javier Muñoz De La Torre, Ermua | 00:43:47 |
| 113. | Jon Ander Garitano Ask. Bergara | 00:43:48 |
| 114. | Jon Marton Otamendi, Bergara | 00:43:48 |
| 115. | Aitor Laskurain Zubia, Bergara | 00:43:53 |
| 116. | Asier Garcia Beristain, Bergara | 00:43:54 |
| 117. | Ander Garitano Zuazo. Bergara | 00:43:55 |
| 118. | Javier Hernandez, Ermua | 00:43:56 |
| 119. | Joxe Aranzani Martin, Oñati | 00:43:58 |
| 120. | Lucas Alberdi Azkorbebe. Ermua | 00:43:59 |
| 121. | Ibon Garitano Muruam. Bergara | 00:44:00 |
| 122. | Unai Ugarte, Bergara | 00:44:00 |
| 123. | Santiago Santamaria Bar. Eibar | 00:44:03 |
| 124. | Haritz Elexpuru, Donostia | 00:44:04 |
| 125. | Juan Carlos Hernandez Tol. Deba | 00:44:12 |
| 126. | Josu Goitia Zelaia. Bergara | 00:44:12 |
| 127. | Alex Martiarena, Arrasate | 00:44:18 |
| 128. | Iñigo Iriarte Lizabe | 00:44:21 |
| 129. | Jose Carlos Serrano Flores, Oñati | 00:44:23 |
| 130. | Ruben Gonzalez, Gasteiz | 00:44:26 |
| 131. | Iker Osa Alustiza, Bergara | 00:44:27 |
| 132. | Jon Uriarte, Elorrio | 00:44:30 |
| 133. | Iñigo Agirre Mendieta | 00:44:31 |
| 134. | Hugo Montalvo Garcia, Donostia | 00:44:33 |
| 135. | Manolo Dosuna Gomez, Eibar | 00:44:37 |
| 136. | Rafa Furnier Sánchez, Mendaro | 00:44:40 |
| 137. | Josu Arruabarrena, Zizurkil | 00:44:45 |
| 138. | Mikel Maiztegi Biain, Oñati | 00:44:47 |
| 139. | Anselmo Gomez | 00:44:47 |
| 140. | Martin Guridi Alustiza, Bergara | 00:44:49 |
| 141. | Martin Odriozola Gonzalez | 00:44:53 |
| 142. | Inaki Zangitu Arrieta, Bergara | 00:44:54 |
| 143. | Aitor Etxabe Zulaika, Zarautz | 00:44:55 |
| 144. | Julian Rodriguez Gonz. Bergara | 00:44:59 |
| 145. | Jesus Labaka Arando, Bergara | 00:45:05 |
| 146. | Sabino Azkarate Leturia, Bergara | 00:45:09 |
| 147. | Saturnino Lopez Moreno, Angiozar | 00:45:15 |
| 148. | Igor Basauri Ganboa, Bergara | 00:45:17 |
| 149. | Jabier Hernandez Ol. Errenteria | 00:45:22 |
| 150. | Aimar Arakistain Agirre, Eibar | 00:45:25 |
| 151. | Aingeru Azazeta Villarreal, Altsasu | 00:45:29 |
| 152. | Unai Bengoa Santxo, Bergara | 00:45:31 |
| 153. | Luis Pelayo Merino, Santander | 00:45:34 |
| 154. | Mikel Elizburu Iraola, Arrasate | 00:45:36 |
| 155. | Jesus Zabaleta, Oñati | 00:45:40 |
| 156. | Carlos Ayesta Arruza, Elgoibar | 00:45:44 |
| 157. | Mikel Etxaniz Alberdi, Bergara | 00:45:50 |
| 158. | Aritz Beiztegi Ugarte, Bergara | 00:45:50 |
| 159. | Txus Iglesias Fernandez, Bergara | 00:45:56 |
| 160. | Fer. Murumendiaraz, Bergara | 00:45:56 |
| 161. | Patxi Rubio Mart. Uharte Arakil | 00:45:58 |
| 162. | Juan Ignacio Lopez Ara. Bergara | 00:45:58 |
| 163. | Josu Errazti, Arrasate | 00:46:00 |
| 164. | Modesto Cid, Elgoibar | 00:46:00 |
| 165. | Jon Ander Gallastegi J. Bergara | 00:46:00 |
| 166. | Iñaki Barrutia Ibarrola, Bergara | 00:46:09 |
| 167. | Cesar Miota Peña, Antzuola | 00:46:11 |
| 168. | Oier Irazabal Garciandia, Elgoibar | 00:46:12 |
| 169. | Eugenio Barquero Mur. Bergara | 00:46:12 |
| 170. | Juanjo Ciordia Martinez D. Gasteiz | 00:46:18 |
| 171. | Aitor Alarcia | 00:46:22 |
| 172. | Gonzalo Abad, Bergara | 00:46:24 |
| 173. | Ekaitz Aramendi | 00:46:26 |
| 174. | Iñaki Penedo Eubieta, Eibar | 00:46:34 |
| 175. | Aitor Zabala, Eibar | 00:46:36 |
| 176. | Tomas Azpeleta, Elgoibar | 00:46:40 |
| 177. | Asier Jimenez Benito, Arrasate | 00:46:41 |
| 178. | Jose Angel Muñoz Gonz. Bergara | 00:46:42 |
| 179. | Fran Fernandez Arrieta, Eibar | 00:46:46 |
| 180. | Daniel Balmori, Bergara | 00:46:53 |
| 181. | Andoni Ozaeta Mendia. Arrasate | 00:46:58 |
| 182. | Javier Retegi, Arrasate | 00:47:06 |
| 183. | Aitor Lete Larrañaga, Bergara | 00:47:32 |
| 184. | Igor Sarasola Barandi. Ordizia | 00:47:35 |
| 185. | Ibon Arrieta Urriategi, Bergara | 00:47:42 |
| 186. | Juan Luis Arriola Lazk. Bergara | 00:47:48 |
| 187. | Patxi Arriola Lazkano, Bergara | 00:47:49 |
| 188. | Iñigo Aierbe Alonso, Ordizia | 00:47:50 |
| 189. | Jonatan Atxa Bastardo, Arrasate | 00:47:58 |
| 190. | Ruben Gomez, Eskoriatza | 00:48:15 |
| 191. | Igor Bauza Madariaga, Bergara | 00:48:15 |
| 192. | Carlos Ruda Fraile, Zumarraga | 00:48:16 |
| 193. | Ioseba Orgaz Yarza, Bergara | 00:48:24 |
| 194. | Oscar Unzurrunzaga Gal. Oñati | 00:48:25 |
| 195. | Alex Odriozola Aldazabal, Bergara | 00:48:39 |
| 196. | Gonzalo Bolado Puen. Santander | 00:48:40 |
| 197. | Joseba Alberdi, Azkoitia | 00:48:42 |
| 198. | Jose Ignacio Albisua Ira. Bergara | 00:48:42 |
| 199. | Ion Ormaetxea, Zizurkil | 00:48:49 |
| 200. | Ion Balentziaga, Bergara | 00:48:49 |
| 201. | Iñaki Gantxegi Barrena, Bergara | 00:48:54 |
| 202. | Luis Enrique Montes Perez | 00:48:57 |
| 203. | Eñaut Uriarte Palacio, Bergara | 00:49:00 |
| 204. | Jesus Gutierrez, Eibar | 00:49:04 |
| 205. | Joseba Gabilondo, Linzoain | 00:49:17 |
| 206. | Arkaitz Arregi Sagasta, Arrasate | 00:49:22 |
| 207. | Jose Luis Erauskin, Donostia | 00:49:22 |
| 208. | Xabier Abulo, Aretxabaleta | 00:49:25 |
| 209. | Iker Badiola Etxaburu, Bergara | 00:49:38 |
| 210. | Jose Luis Borbolla, Arrasate | 00:49:44 |
| 211. | Jose Luis Irizar Etxeberria, Oñati | 00:49:47 |
| 212. | Juan José Sanz De Di. Santander | 00:49:55 |
| 213. | Xavier Azkarate Maturana, Elorrio | 00:49:58 |
| 214. | Ander Barruso Iturbe, Bergara | 00:50:00 |
| 215. | Markel Lopez Larrañaga, Bergara | 00:50:00 |
| 216. | Rafa Santxez Muxika, Bergara | 00:50:12 |
| 217. | Jaio Manzanedo Gabilond. Bergara | 00:50:13 |
| 218. | Jon Zabala Puy, Bergara | 00:50:13 |
| 219. | Alex Barruso Lazkano, Bergara | 00:50:21 |
| 220. | Jesus Mendiaraz Elex. Arrasate | 00:50:23 |
| 221. | Mikel Mendiaratz, Aretxabaleta | 00:50:23 |
| 222. | Igor Guenetxea, Aretxabaleta | 00:50:46 |
| 223. | Iñaki Eguren Zornoza, Bergara | 00:51:17 |
| 224. | Xabier Madina, Oñati | 00:51:24 |
| 225. | Aniotz Gabilondo, Bergara | 00:51:34 |
| 226. | Javier Lazkano Azkar. Bergara | 00:51:37 |
| 227. | Iñigo Larrañaga Elorza, Bergara | 00:51:50 |
| 228. | Joaquin Gonzalez, Bergara | 00:51:57 |
| 229. | Oihana Loiti, Arrasate | 00:52:01 |
| 230. | Pedro Iglesias, Antzuola | 00:52:08 |
| 231. | Lander Arrizabalaga Z. Eibar | 00:53:04 |
| 235. | Julen Gonzalez Jimenez, Arrasate | 00:53:11 |
| 236. | Pablo Penedo Eubieta, Eibar | 00:53:15 |
| 237. | Josu Gisasola, Elgoibar | 00:53:15 |
| 238. | Daniel Lopez Husillos, Eibar | 00:53:46 |
| 239. | Jose Plaza, Markina | 00:53:46 |
| 240. | Jesus Onazkinaga, Bergara | 00:54:17 |
| 241. | Luis Angel Perez, Bergara | 00:54:18 |
| 242. | Jon De Pedro Laskurain, Bergara | 00:55:03 |
| 243. | Gorka Carvalho Lar. Bergara | 00:55:03 |
| 244. | Jesus Tadeo Vazquez | 00:55:04 |
| 245. | Juan Martin Elexpuru Ar. Bergara | 00:55:51 |
| 246. | Roman Unamuno, Bergara | 00:56:12 |
| 247. | Fermin Najera Ortigosa, Bergara | 00:56:56 |
| 248. | Alvaro Gallastegi Murua, Bergara | 00:57:16 |
| 249. | Unai Azkarte Ilarduia, Orio | 00:57:35 |
| 250. | Pedro Gutierrez Iñarra, Bergara | 00:59:49 |
| 251. | Bittor Urzelai Bengoa, Eibar | 01:01:07 |
| 252. | Joseba Sagarna Arrizabal. Deba | 01:01:09 |
| 253. | Dionisio Ovejero, Arrasate | 01:02:26 |

**EMAKUMEZKOAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Tabitha Wambui | 00:37:02 |
| 2. | Onintza Zeberio Arretxe, Azpeitia | 00:39:32 |
| 3. | Pili Bodegas, Hernani | 00:40:10 |
| 4. | Arantxa Beitia, Deba | 00:44:11 |
| 5. | M. Itziar Aldekoa Urbieta, Bergara | 00:45:05 |
| 6. | Kristina Ruiz Garcia, Eibar | 00:46:36 |
| 7. | Olatz Manuel Ezenarro, Antzuola | 00:47:14 |
| 8. | Agotz Iturbe Murguiondo, Oñati | 00:48:48 |
| 9. | Arantzazu Larrañaga, Uharte Arakil | 00:48:50 |
| 10. | Alazne Madariaga, Berriz | 00:48:57 |
| 11. | Miren Zubeldia Plazaola, Oñati | 00:49:21 |
| 12. | Ana Isabel Urmeneta, Oñati | 00:49:36 |
| 13. | Idoia Aranguren | 00:49:43 |
| 14. | Amaia Larranzabalegi, Eibar | 00:50:06 |
| 15. | Yoana Gallastegi Eguren, Bergara | 00:50:13 |
| 16. | Maite Zabaleta, Oñati | 00:50:45 |
| 17. | Nerea Arregi Sagasta, Arrasate | 00:51:03 |
| 18. | Yolanda Ezkurra, Arrasate | 00:51:50 |
| 19. | Pilar Begoña Duque H. Zumarraga | 00:51:56 |
| 20. | Ane Miren Etxabe, Plentzia | 00:51:57 |
| 21. | Enara Iglesias, Antzuola | 00:52:08 |
| 22. | Mª Jose Gil Gil, Arrasate | 00:53:07 |
| 23. | Yolanda Perez De Arenaza, Arrasate | 00:53:07 |
| 24. | Alaina Igarza Mendikute, Bergara | 00:53:34 |
| 25. | Nora Pedrejon Ibarra, Bergara | 00:53:35 |
| 26. | Lur San Pedro, Arrasate | 00:56:14 |
| 27. | Amaia Lazkano | 00:56:53 |
| 28. | Jone Pagaldai Orbea, Bergara | 00:57:15 |
| 29. | Eider Gallastegi Eguren, Antzuola | 00:57:15 |
| 30. | Maialen Alkorta Agirre, Bergara | 00:57:16 |
| 31. | Marije Zubizarreta Elizburu, Oñati | 00:58:50 |
| 32. | Juncal Zubizarreta Eliz. Eskoriatza | 00:58:51 |
| 33. | Lukene Igartua Egaña, Oñati | 00:58:52 |
| 34. | Nerea Lariz Irazabal | 00:59:39 |
| 35. | Maite Rementeria Gantx. Bergara | 00:59:39 |
| 36. | Ana Urzelai Bengoa, Deba | 01:01:07 |
| 37. | Amaia Ovejero, Arrasate | 01:03:23 |
| 33. | Lukene Igartua Egaña, Oñati | 0:58:52 |
| 34. | Nerea Lariz Irazabal | 0:59:39 |
| 35. | Maite Rementeria Gantx. Bergara | 0:59:39 |
| 36. | Ana Urzelai Bengoa, Deba | 1:01:07 |
| 37. | Amaia Ovejero, Arrasate | 1:03:23 |

Iturria: www.herrikrossa.com

Asier Garitano > Alacanteko futbol entrenatzailea

# "Futbola jokoa da eta, azken finean, emaitzek agintzen dute"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Asier Garitano bergararra Alacant taldeko entrenatzaile berria da. Emaitza txarren ondorioz, Jose Carlos Granero entrenatzailea taldetik kanpo utzi dute eta Garitanok hartu du lekukoa. Helburua maila mantentzea izango dela esan zigun atzoko partiduaren aurretik.**

**Denboraldia hasita, ezustean, entrenatzaile izateko ardura iritsi zaizu.**

Bi urte nindoan Jose Carlos Granadorekin lanean eta, esan bezala, ezustea izan da Granado taldetik kanpo uztea. Emaitzak ez dira onak izan eta klubak erabaki du Granado kentzea eta entrenatzaile berria ekartzea. Lehenengo partiduan, Celtaren aurka nik hartu nuen taldearen ardura eta gauzak ondo joan ziren. Hala, presidenteak aukera eman dit taldean jarraitzeko.

Baina, egoera aldatu egin beharko da, talde bat entrenatzaile gabe bi astez bakarrik egon daiteke-eta. Albaceteren aurkako emaitzaren arabera, geratu egingo naiz edo beste entrenatzaile bat ekarriko dute.

**Erronka izan da taldearen ardura hartzea?**

Niretako egoera lasaia da; izan ere, jokalari guztiak ezagutzen nituen aurretik. Alacanteko taldea, zaleak, prentsa… guztia ezagutzea abantaila izan da. Gainera, emaitza onak izan ditut eta oraingoz jarraitu egingo dut. Baina, futbolean emaitzak atera behar dira; bestela, entrenatzaile berria ekarriko dute.

**Sailkapeneko egoera ikusita, nola aurkitu dituzu jokalariak?**

Taldearen egoera ona da. Gertatzen dena da, Alacant beti aurrean egon izan dela; inoiz ez da lehenengo hamarrak baino beherago egon. Baina, goian egon izan gara 2.B mailan eta 3. mailan. Aurten, 2.A mailan gaude eta gauzak zailagoak dira. Ez ditugu emaitza onak izan eta egoera nabaritu duen lehenengoa entrenatzailea izan da. Baina jokalariek badakite aurtengoa urte zaila izango dela; gure helburua mailari eustea da.

**Nola egingo diozue aurre egoerari?**

Ez dugu asmorik jokalari berriak ekartzeko. Nik uste dut talde ona daukagula, orekatua. Hori da nik uste dudana baina, esan bezala, ez dakit zer gertatuko den. Gu lasai gaude, badakigu gauzak ondo egiten; eta, gainera, badakigu gauzak ondo egin ditugula hainbat partidutan. Horri jarraipena eman behar diogu eta, nola ez, zorte pixka bat ere izan behar dugu.

**Sailkapeneko egoera ikusterakoan, kontuan hartzekoa da Alacantek 2. mailako aurrekontu txikienetarikoa duela.**

Bai, pentsatzen dut hola izango dela. Baina, futbolean, denek aurrean egotea gura izaten dute; eta, gure kasuan zaila izango da. Aspaldiko partez bigarren A mailan gaude. Uste dut azken 60 urtetan lehenengo aldia dela maila honetan gaudela. Hortaz, kosta egingo zaigu. Baina, nik konfiantza osoa daukat eta uste dut aterako garela behetik eta denboraldi polita egingo dugula. Baina, futbolean, denek aurrean egotea gura izaten dute; eta, gure kasuan zaila izango da.

**Emaitzen arabera lan egiteak ze sentsazio ematen du? Gogo gehiagoz lan egiten da edo urduritasuna nabaritzen da?**

Niri lasaitasuna ematen dit. Ez neukan asmorik horrelako egoera baten egoteko; eta, ikusita bi aste hauetan izan ditudan emaitzak lasai nago. Hemengo jokalariak, zaleak eta prentsa alde ditut eta, orain arte behintzat gauzak ondo atera dira.

Nik badakit taldea nola gidatu nahi dudan; horregatik, esperientzia bat bezala hartzen dut momentu hau. Gainera, jokalariei helarazi gura diet oso seguru nagoela eta ez dudala dudarik.

**Klubaren eta jokalarien aldetik babes osoa jaso duzu?**

Bai, jokalarien aldetik banekien babes osoa izango nuela; denak ezagutzen nituen eta eurek ere ni ezagutzen naute. Alde horretatik, banekien dena emango zutela. Gero, emaitzen arabera izango da jarraipena, baina jokalarien jarrera badakit ona izango dela.

**Celtaren aurka, Balaidosen egin zenuen estreinaldia. Nola gogoratzen duzu egun hura?**

Aspaldiko partez, urduritasuna nabaritu nuen; baina, partidua hasi zenean oso lasai nengoen. Dena ondo atera zenaren sentsazioa daukat: galtzen hasi ginen baina gero buelta eman genion partiduari, penalti bat ere huts egin genuen eta azkeneko minutuan eskuarekin sartutako gol batekin lehia berdindu zuen Celtak. Joan den astean ere Elx-en berdindu egin genuen. Orain domekako [1-2 galdu zuten Albaceteren aurka] partiduari begira gaude.

**Zuen esku dago, hortaz.**

Sailkapenean aurrera egin eta maila mantendu gura badugu, etxeko partiduetan atera behar ditugu puntuak.

**2. mailan Eibar eta Reala daude. Nola ikusten duzu bi taldeen egoera?**

Nik uste dut Eibarrek argi daukala bere helburua zein den. Maila mantentzea dute buruan, eta lortuko dutela uste dut. Niri gustatuko litzaidake denboraldi lasaia izatea eta maila mantentzea; eta, uste dut lortuko dutela. Izan ere, esperientzia handia daukan taldea da.

Realari buruz ez dakit zer esan. Egoera ez dut ondo ezagutzen baina futbolean denak ezagutzen garenez entzun dut zerbait. Realaren egoera beste bat da; beste helburu bat dute baina gauzak ez doaz ondo. Erakunde mailan ere esan didate gauzak ez doazela ondo presidentearekin. Emaitza txarrak izan dituzte eta hori txarra da.

**Atzera begira jarrita, nola gogoratzen dituzu hasierak?**

Bergararra naiz baina ez dut inoiz Bergaran futbolean jokatu. Bergaran beti pilotan jokatu izan dut; gero, Athleticek fitxatu ninduen, 11 urte inguru nituenean. Futbolean eta pilotan batera jokatzen utzi zidaten. Nire futbol ibilbidearen zati handi bat Athleticen egin dudala esan daiteke, 23 urtera arte, hain zuzen. Pertsona eta futbolari bezala han hazi naiz.

Gero, Eibar, Cadiz, Cartagena, Ferrol, Burgos eta Alacanten ibili naiz. Jokalari bezala, azkeneko lau urteak Alacanten jokatu nituen; gero, beste lau urte eman ditut entrenatzaile laguntzaile bezala.

**Hemendik urte batzuetara non ikusten duzu zure burua?**

Ez dakit datorren astean non egongo naizen ere. Futbolean oso azkar doa dena. Orain entrenatzaile bezala nago Alacanten baina datorren astean beharbada ez naiz egongo.

Ni lasai nago; badakit futbola joko bat dela eta irabazi edo galdu egin daitekeela. Azken finean emaitzek agintzen dute.




Asier Garitano bergararra Alicanteko Villafranqueza kirol hirian, entrenatzen duten tokian. ALICANTE C.F.

**"Aurten 2.A mailan gaude eta jokalariek badakite aurtengoa urte zaila izango dela; gure helburua mailari eustea da"**



**> RIP**
"Portu" eta Karlosen omenezko kontzertua > 26



**> ANTZERKIA**
'SOS Temible. El silenciador' antzezlana Bergarako Gaztetxean > 26

**> JUAN MARTIN ELEXPURU**
Idazle bergararrak asteburuan egiten dituen planei buruz hitz egin digu. Irakurtzea eta lagunekin kirolean zein poteatzen aritzea dira besteak beste aisialdian gehien gustatzen zaizkionak > 27




# Hortzak erakutsiz eta gitarrak zorroztuta

Bakarlaritik hasi eta azkeneko talderaino, erasora atera ziren guztiak tinko

Rock eta metalaren artean, noise-ra hurbildu ziren Adi Holden, gaua borobilduz

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

Bigarren gaua – gau hotza – eta horri aurre egiteko gitarra astunak izan ziren erregaia. Hortzak erakutsiz eta erasokor ikusi genituen taldeak egubakoitzean.

Hala, bakarlari bai, baina ez zen bakarrik igo Ni_neu agertokira. Laukotea – teklatu eta guzti – atera zuen eibartarrak eta abestiei rock taldearen hezur eta mami guztia eman gura izan zien horrela . Apustuan, irabazle atera zaitezke taldeak bultzada ematen badie kantuei baina galtzaile taldeak bakarlaria irensten badu eta sarri gertatu zen hori. Indar gehien eskatzen zuten uneek bulkada izan zuten baina horietan ere taldeari entsegu orduak falta zitzaizkiola eman zuen. Hala ere, gerokoak ikusi, eta batez ere, entzunda, ondo egin zuen Ni_neuk gitarrak zorrozten, gaueko gainontzeko taldeak letaginak aterata eta watio karga izugarriarekin etorri ziren-eta.

**SINESGARRI ETA GOGOR**

Hain zuzen hortzak erakutsiz eta aizkorak zorrotuta agertu ziren lehenak Scamekoak izan ziren. Teknikoki zehatz, agertokian seguru eta asko ezustean harrapatu zituen ostia txarrarekin, bigarren aldian sendoago eta sinesgarriago irten dira. Ezin zaie ukatu, gainera, gogotsu eta ilusioz ikusten zaiela eta horrekin ere asko daukate irabazita. Aurreko Danbakan baino hobeto, baina batez ere sinesgarriago.

Scamekoen ostean maila teknikoak eta suharrak ez zen inola ere murriztu. Lord Witchekoak baino heavy klasikoagorik ezin da jo baina, halaber, egia da horren ondo jotzea ez dela txikikeria. Bikain, eta estiloa maite dutenendako gozatu ederra.

**INTENTSITATEAREN MAISU**

Eta azkenik agertoki gainean guztia eman zutenak. Talderik helduena, abesti borobilenak eta estilo aldetik bereizgarrienak izan ziren Adi Holdenekoak. Intentsitatearekin jolastuz, amorru eta maitasun abesti latzetan rock hutsetik noisera eta handik joandako hamarkadako indie-aren *riffik* sarkorrenetara. Guztia amorruz eta sekulako indarrarekin agertokiko zentimetro guztiak beteaz. Taldeak osorik eta banan-banan bikain jardun zuen. Esan moduan, hortzak erakutsi zituzten egubakoitzean den-denek.

GIROA

## Martxa betean doa dagoeneko hirugarren edizioa

Hotza, behe lainoa eta euria Elgetan, egubakoitz gauean. Faktore guztiak zeuden egubakoitzean aurka. Aurreko saioko betekada eta gogoak errepikatuko ote ziren zalantza. Ba, usteak erdia ustel eta gogo eta jenderik ez zen falta izan bigarren kontzertu sortan ere. Arnasa hartzeko asti barik ia, indarrez eta gitarra kolpez berotu dute guztiek gaua. Eta gora beherekin, ikusleek eutsi zuten azkeneko kontzertura arte.



**ADI HOLDEN** Alex Muela taldeko gitarra jotzailea dena ematen, egubakoitzean Espaloian. JOSETXO ARANTZABAL



## NI_NEU | Eibar

**Adituak** > Mikel Alvarez (Aby Kem)
"Teknikoki zuzen ikusi dut baina lar laua iruditu zait. Arrisku gutxi hartu dute eta horrek eragin du saio osoa lineala izatea. Faltan sumatu diet, bai abestiei zein zuzenekoari, beste ukitu bat-edo, intentsitatean sakontzeko adibidez. Abestiak ondo zeuden baina, nolabait esatearren, distira ematea izan dute faltan".

**Ikusleek esana** > Joseba Azkue (Azkoitia)
"Musikalki, kalitate handikoa iruditu zait, nabari da eskarmentu handia duela, ordu asko eman dituela taula gainean. Emanaldi konpletua izan da; hasieran soinua ez zen oso ona, baina erdialdetik aurrera hobetuz joan da".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Abestiei buelta bat eta taldeari entsegu bat edo beste falta zaiela iruditu zait. Ondo jo dute baina sarri batasuna falta izan zaie. Hala ere, gitarra eta baterian, abestiak janzteko ahalegina ikusi da baina, teklatuei adibidez, ez die batere probetxurik atera. Hala ere, ikusleengandik gertu eta epel agertu da Ni_neu".

**Bakarlariak esana**
"Ordu erdi bakarrik da eta oso denbora gutxi da hori baina gustura atera naiz. Nire planteamendua ez da bakarlari moduan agertzean, rock taldearekin aurkeztu gura izan dut nire burua, taldea izango balitz bezala nahiz eta konposaketa nirea izan".



## SCAM | Aretxabaleta

**Adituak** > Mikel Alvarez (Aby Kem)
"Aurrekotik ona sekulako hobekuntza egin dute. Oso onak iruditu zaizkit. Zehatzak izan dira eta lokalean sekulako lana egin dutela ikusi da. Oso prestatuta etorri dira. Heldutasun asko lortu dute. Estiloa bereganatu eta menderatu egin dute eta orain esatekoa daukatela erakutsi. Finalerako kontuan hartzeko taldea izango da".

**Ikusleek esana** > Joseba Azkue (Azkoitia)
"Duela bi urte ere ikusi nituen, eta asko egin dute  aurrera. Akaso ez da musika orijinala, baina formatua ezagutzen zuten, ondo prestatu dute eta jakin dute aprobetxatzen; jendearekin konektatu dute".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Taldea heldu eta sendotu egin da. Erasokorrago etorri dira eta heldutasunerako bide horretan zakartu egin dira. Asko irabazi dute horrela baina agian arriskatu egin dute abestietan melodia askotan alde batera utzita. Hala ere, oso ondo".

**Taldekideek esana**
"Abestiekin askoz ere identifikatuago sentitzen gara orain. Ostia txarragoarekin egindakoak dira, indar gehiago daukate. Hala atera zaizkigu oraingoan.Taldean ere oso gustura amaitu dugu. Azkenaldia talde handiagoekin eta areto handiagoetan jotzeko aukera izan dugu eta eskola da hori; hemen ere igarri dugu".



## LORD WITCH | Bergara

**Adituak** > Mikel Alvarez (Aby Kem)
"Hasieran soinua ez dute alde izan, gitarrak argiago entzungo balira asko irabaziko zuten. Gero konpondu egin da eta hobeto joan da. Bestela, oso onak dira jotzen eta maila ona daukate. Transmititu egin dute eta jendea animatzen saiatu dira eta baita lortu ere".

**Ikusleek esana** > Joseba Azkue (Azkoitia)
"Horrelako kontzertu baten, atsegina eta guzti egin da heavy metala: hasi lasai xamar hasi dira eta ondoren sartu dituzte doinurik gogorrenak; ikusleak gehien animatu dituen taldea izan da. Ezagutzen nituen aurretik, eta gaurkoan, helduago ikusi dituk".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Ezin hobeto jo dute eta heavyrik klasikoena ondo baino hobeto menderatu eta gozatzen dutela argi dago. Abeslariak ere asko interpretatu du, bizi du kantatzen duena, eta ikuskizunean ere asko lagundu du horrek. Txukun eta akats barik ia, teknikoki bikainak".

**Taldekideek esana**
"Euforiko bukatu dugu, sekulakoa izan da. Hasieran apur bat berotzea kostatu bazaigu ere joan gara neurria hartzen eta gainera jende piloa etorri da gu ikustera. Horietako asko kontzertuetatik soilik ezagutzen ditugu eta oso giro ona egon da haiei esker ere".



## ADI HOLDEN | Bergara

**Adituak** > Mikel Alvarez (Aby Kem)
"Kaskar hasi baina berehala zuzendu dira. Sorpresa izan da. Orain dela hamarkada batzuk Euskal Herrian egiten zen rocka hartu eta ukitu berria eman diote. Agertokia ere asko bete du abeslariak, ikuskizuna eman dute eta horrek ere aldeko puntu asko eman dizkie".

**Ikusleek esana** > Joseba Azkue (Azkoitia)
"Nahiko musika berezia egiten dute, musika gordina esango nuke... Gaurkoa moduko kontzertu baten, apur bat lekuz kanpo moduan geratu dira; bigarren jo izan balute, hobeto sartuko lirateke. Esperientzia dutela erakutsi dute era berean, nabarmena izan da hori".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Intentsitatearekin urratu eta ia zauritu gaitutze. Ikaragarri izan da abestietan ipinitako indarra eta emozioa. Guztia eman dute eta ikuskizuna ere ikaragarria izan da. Talde oso heldua dela ikusi da eta berezko izaera ere baduena. Ezusteko benetan atsegina".

**Taldekideek esana**
"Gu ez gara kristoren musikariak baina, hala ere, guk nahi duguna intentsitatea lortzea da, emozioak azaleraztea. Gorroto eta maitasunaren arteko horretan daude gure abestiak. Horra, emozioetara intentsitatearen bitartez heltzea da guretzat musika eta horretan saiatzen gara".

## Publikoaren Saria

Eman zure botoa, kontzertuko sarreraren atzealdean zure gustuko taldea aukeratuta.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | THE 5 TWISTERS | ARRASATE | Botoen %23,54 |
| 2 | MERY MAY | ARRASATE | Botoen %17,09 |
| 3 | SCAM | ARETXABALATA | Botoen %16,12 |
| 4 | DAMUDOT | MALLABIA | Botoen %14,19 |
| 5 | NI NEU | EIBAR | Botoen %8,38 |
| 6 | LORD WITCH | BERGARA | Botoen %7,75 |
| 7 | ADI HOLDEN | BERGARA | Botoen %4,51 |
| 8 | YMOTEK | ABADIÑO | Botoen %2,58 |
| 9 | TURBOSHIT | BERGARA | Botoen %2,25 |
| 10 | HILBETE | DURANGO | Botoen %1,29 |
| 11 | BITTER HONEY | ARRASATE | Botoen %0,64 |
| 12 | THE MOTHER FUCKERS | ARRASATE | Botoen %0,64 |
| 13 | FOXY BOXXY | ARRASATE | Botoen %0,64 |
| 14 | NORMAN | EIBAR | Botoen %0,32 |
| 15 | LOS VIERNES AL RON | ANTZUOLA | Botoen %0 |
| 16 | ARMY-ARMA | ZORNOTZA | Botoen %0 |
| 17 | BRANKAN | BERRIZ-MARKINA | Botoen %0 |
| 18 | IGOR SAN JUAN | ARETXABALETA | Botoen %0 |
| 19 | FLIPIN FOLK | ERMUA-EIBAR | Botoen %0 |
| 20 | ROCK PRIVADO | OÑATI-DONOSTIA | Botoen %0 |
| 21 | THE WET BAND | MUTRIKU | Botoen %0 |
| 22 | BARUA BANDA | ESKORIATZA | Botoen %0 |
| 23 | TUESDAY EVENINGS | DURANGO | Botoen %0 |
| 24 | REVELPHONE | SORALUZE | Botoen %0 |


Scameko baxu-jotzailea.


Alex Muela, Adi Holdeneko abeslaria.


Lord Witcheko Javi eta Euge tximak astintzen.


Ni-Neuko bateria, izerditan.


Ni_Neuren teklatua.


Aitor Sologaiztoa bakarlaria, Ni-Neuko taldekideekin.


Scameko bateria, jo eta su.


Lord Witcheko Jorge.


Iker Narvaez, Lord Withcekoa, bateria astintzen.


Scamen kontzertua.


Usoa Agirre / Maider Arregi

## Halloween gauean, beltza nagusi

Barikuko euri jasak eta hotzak ez zuen jendea kikildu eta uste baino ikusle gehiago inguratu ziren bigarren kontzertura. Asko, gainera, Debagoienetik kanpokoak. Ni_Neuk **Eibarko** lagun asko ekarri zituen.

Scamek ere jende ugari bildu zuen eta jarraitzaile sutsuenen artean han egon ziren taldeko partaide guztien **gurasoak**. Aurten ere manager eta guzti inguratu ziren. **Joxebi** momentuoro egon zen beraiekin, aldaketa egiten laguntzen eta gomendioak ematen.

Lord Witchek heavy zale asko ekarri zituen. **Tximaluze** eta beltzez jantzitako ugari egon ziren lehen ilaran. Aipatzekoa, bateria-jolearen erritmo "txibatoa". Poltsikoko telefono batetik entzuten zituen Ikerrek abesti guztietako konpasak.

Aurrekoetan ez bezala, **ume koadrila** ikusi genuen. Ez dakigu zeinen jarraitzaileak ziren; 10. ediziorako ikasten arituko ziren beharbada.

Aurtengoan epaimahaia aldatu da. **Itziar Iturber**en ordez beste bergarar bat izango dugu kontzertu guztietan: **Julen Narbaiza**. *Putzuko* eta Txibistoko garaiak aspaldi joan ziren, baina musikarako zaletasuna ez du galdu Narbaizak.

### Azaroaren 14an...

> Los Viernes al Ron (Antz.)
> Bitter Honey (Arrasate)
> Army-Arma (Zornotza)
> Brankan (Berriz-Mutriku)

### HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

**Joseba Goikoetxea**
Antzuola

"Aurretik ere ezagutzen nuen Danbaka, duela bi urteko edizioan ere ibili nintzen bertan. Taldeak ezagutzera emateko ideia ona da, eta egiten den montajea ere, polita iruditzen zait. Jendea animatuta etortzen da, eta horrek norbera ere animatzen du".

**Eric Gato**
Arrasate

"Gaur Scam taldea ikustera etorri naiz, baina sarri etorri naiz Danbakako kontzertuak ikustera. Elgetarako bidean eguraldi txarra eta behelainoa egin arren, gero hemen oso gustura egoten da, eta horregatik denei gomendatuko nieke kontzertuetara etortzea".

**Unai Arazkonaga**
Bergara

"Estilo hauek ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina, gustura nago kontzertuak ikusten. Aurreko edizioetan ere egon nintzen lagunek jotzen zutelako. Ondo iruditzen zait Danbakaren esparru geografikoa zabaltzea, beti ere, bertakoendako saririk badago".

**Igor Elkoro**
Eibar

"Ez nuen aurretik Danbaka ezagutzen, gaur da etortzen naizen lehenengo aldia, eta egia gustura nago, ideia ona iruditzen zait. Debagoienaz gain beste herri batzutara zabaltzea ona delakoan nago: gero eta herri gehiago izan, barietate zabalagoa egongo da".

**Haridian Cubillo**
Aretxabaleta

"Scam taldea ikustera etorri naiz bereziki. Aurrez ere egondakoa naiz, eta aurten asko gustatu zait Danbakak duen irudi berria, esaterako logotipoa. Kontzertu gehiagotara etorri ala ez erabakitzeko, *Danbaka.com*-en entzungo ditut abestiak".

**MUSIKA**> KONTZERTUA ARRASATEKO GAZTETXEAN

# RIP: urteek inporta ez duten seinale

RIP taldeko Karlos eta 'Portu'ren omenezko kontzertuan aritu ziren lau taldeek 400 pertsonatik gora erakarri zituzten.

**I.BARANDIARAN/T.MADINA** > ARRASATE

Ia 25 urte pasa dira Arrasateko RIP taldeak bere lehen diskoa kaleratu zuenetik, eta dagoeneko taldea desegindа egon arren, zapatuan Arrasateko Gaztetxean egindako kontzertuan argi geratu zen jarraitzaileek ez dituztela ahaztu. Taldeko Karlos eta *Portu*ren omenezkoa izan zen kontzertua eta lau taldek jo zuten bertan. Taula gainera igo ziren gonbidatuen zerrenda baina, luzea izan zen.

Nahiko lasai hasi zen gaua, Sala arrasatearrak eta Pascal alemaniarrak gitarrekin egin zuten kontzertu akustikoarekin. Bakarka zein elkarrekin, The Clash eta Stiff Little Fingers taldeen bertsioak jo zituzten beste batzuen artean.

Baina barealdiaren ostean beti dator ekaitza, eta halaxe gertatu zen Material Rechazadoko mutilen txanda heldu zenean. Punka lantzen dute hauek, rock ukitu batekin beti ere, eta Eskorbuto zein Cicatriz taldeen bertsioak jo zituzten besteak beste. Ia abesti guztietan, gainera, laguntzaileren bat izan zuten.

Taularatzen hirugarren taldea Gasteizko Carrocerías Betoño izan zen: talde ganberroa, dibertigarria eta ikuskizuna ematen dakiena. Belen eta Iker abeslariek hainbat mozorro jantzi zituzten: orain moja, orain apaiz. Aipatzeko da baita ere, RIPeko bateria zen Txerra talde honetan aritzen dela, eta bere anaia Julekin batera hainbat abesti jo zituztela.

Baina ez zen bi anaiak taula gainera batera igo ziren une bakarra izan, gaua itxi zuen Never Surrenderren kontzertuan ere hartu zuten parte-eta. Kantu aukeraketa berezia egin zuten hauek; euren abestiak jo partez, gehienak bertsioak izan ziren: batez ere The Clashenak, baina baita, RIPek jotzen zituenCockney Rejects eta 4skinsen kantu bana ere.



Carrocerías Betoñok ikuskizun dibertigarria eskaini zuen. JOSETXO ARANTZABAL



Arrasateko Material Rechazado taldeko mutilak. JOSETXO ARANTZABAL

**RIPEN BERTSIOAK**

Baina gaueko berezitasunetako bat izan zen talde guztiek jo zutela RIP ezaguna egin zuen abestiren bat edo beste. Sala&Pascalek adibidez, era akustikoan joaz, ukitu berezia eman zioten *Condenado* abestiari eta *Incorruptible* kantua bestalde, bi taldek bertsionatu zuten, Carrocerias Betoñok eta Material Rechazadok. Never Surrenderrek besteak beste, *Kaos* edo *Mundo muerto* moldatu zituzten. Amaigabea izan zen ia bertsioen segida.

Antolatzaileak oso gustura zeuden kontzertuaren arrakastarekin: 400 pertsonatik gora bildu ziren; adin guztietakoak, baina batez ere, gaztetxoak.



ASTE BUKAERA...

## Juan Martin Elexpururekin




Zapatuan Soraluze-Bergara proba korritu zuen Juan Martin Elexpuruk. Argazkian beroketa ariketak egiten, irteera baino lehen. JOSETXO AANTZABAL

# "Korrika egin eta lagunekin mendiko bizikletan ibiltzen naiz aste bukaeratan"

Bergarako Ubera auzoan bizi da Juan Martin Elexpuru idazleak itzulpenak egiten ditu egun

Irakurtzea, mendian ibiltzea eta Elgetako lagunekin 'poteatzeko' aprobetxatzen du aisialdia

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Juan Martin Elexpuru (Bergara, 1950) itzulpengintzan dago sartuta buru-belarri. Horrela definitzen du bere burua: "Euskal kulturako autonomoa nahiz lanbidez, eta itzulpenak egiten ditut".

Autonomoa izanik etxetik egiten du lan. "Etxean lan egitea oso erosoa da. Bulegoa daukat eta itzulpenak zuzenean ordenagailuan egiten ditut", esan digu. Askotariko itzulpenak egiten dituela esan digu: "Politena liburuak itzultzea da. Baina, batzuetan txostenak itzuli behar ditut; besteak beste, udaletako arau subsidiarioak, Emakundeko txostenak eta Unesco etxearen dokumentuak. Azken hauek oso astunak dira".

Etxean lan egitean orduak bere kontura antolatzeko aukera du. "Egun bakoitza modu ezberdin batera antola dezaket; baina, lana etxean eginda diziplina beharrezkoa da. Oso erosoa da etxetik lan egitea, lan orduak nire kontura antolatzen ditut-eta. Esku artean dudan lanaren arabera, ordu gehiago edo gutxiago egiten ditut. Liburuak itzultzen ditudanean egunero zortzi orri itzultzen ditut. Itzulpen ona egiteko hori da nik dudan erreferentzia", diosku.

Autonomo moduan lan egiteak desabantailak dituela esan digu: "Itzultzaile lana gustuko dut, baina ez da lanbide erraza. Itzultzaileok orri bakoitzeko kobratzen dugu. Hortaz, hilero ez dugu soldata finkorik, baina lanbidea polita da eta momentuz gustura nago".

### "Berandu hasi nintzen duatloiak egiten, baina 30en bat egin nituen lesionatu arte"

Kirolzalea dela esan digu, eta duatloiak egiten berandu hasi zela: "Korrika eta bizikleta uztartzen dituen diziplina berandu ezagutu nuen, baina duela bi urte utzi nuen arte, 30en bat egin nituen; besteak beste, Oñatiko duatloian parte hartu nuen. Triatloiak ere egiten nituen, baina gusturago ibiltzen nintzen duatloietan. Igeriketa egitea oso gogorra zen niretako". Korrika egitea ere gustatzen zaio, eta inguruetako herrietan antolatzen dituzten lasterketetan parte hartzen du: "Zapatuan Soraluze-Bergara lasterketa egin nuen. Nire bikotekide Maritxukk lehen aldiz egin zuen proba eta laguntzaile modura joan nintzen. Gure helburua proba bukatzea zen eta lortu genuen. Gustura bukatu genuen biok". Aspalditik dihardu proba herrikoietan: "Gogoan dut Oñatiko San Silbestre lasterketan parte hartu nuela 1979. urtean lehen aldiz, eta ordutik hor nabil. Aurten ere lasterketa batzuk egin nahi nituzke".

**ELGETARA POTEATZERA**

Jeneralean itzulpenak gaztelerатik euskara egiten ditu, baina batzuetan alderantziz ere bai. "Aldika italieratik eta frantsesetik euskarara itzuli ditut liburuak", esan digu.

Juan Martin Elexpuruk egin dituen azken itzulpenak izan dira Moliere idazle frantziar ezagunaren *Tartufo* eta *Abaro* liburuak.

Hamabi liburu idatzi dituen arren, tartean *Bergara aldeko hiztegia*, momentuz ez du liburu berria idazteko asmorik.

Itzulpenak alde batera uzten dituenean gehien gustatzen zaizkion gauzak egiten ditu: "Batzuetan irakurri egiten dut etxean lasai-lasai; eta beste batzuetan, lagunekin mendiko bizikletarekin irteerak egiten ditut. Domekan, adibidez, Bardeetara joateko asmoa dugu. Baina, beste irteera batzuk ere egin ditugu. Bestalde, domeketan, Elgetara joaten nahiz koadrilakoekin poteoa egitera".

Bergarako Ubera auzoan bizi da, eta etxe inguruan perretxiko bila ibiltzen dela esan digu: "Lehen orain baino denbora gehiago egiten nuen perretxiko bila. Baina, gustatzen zait eta orain, gainera, perretxikoetarako garaia da". Etxean lasai dagoenean irakurtzen duenaz galdetzerakoan, zera esan digu: "Euskarazko eta gaztelerazko literatura irakurtzen dut gehien. Era berean, praktikatzeko asmoz, ingelesezko liburuak irakurtzen ditut. Baina lehen orain baino askoz gehiago irakurtzen nuen", dio Elexpuruk.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai San Andresen, Bañez Doktorea kalean. Berrikuntzak behar ditu. 162.273 euro. 629 10 41 31.

**Bergara.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak eskegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkaleku. Eguzkitsua eta leku lasaian, Berritua eta egoera onean. 198.000 euro. Deitu telefono honetara: 943 76 07 50.

**BERGARA**

**Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.**

**610 73 65 40**

**Elgeta.** Duplexa salgai. Hiru logela eta bi bainugela. Modernoa eta erosoa. Beheko sua. Guztiz jantzia. 210.000 euro. 685 75 18 91.

**Oñati.** 116 metro koadroko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 79 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bia bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara:680 44 95 55.

**Oñati.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Kale Barrian. Bi logela. Oso prezio interesgarria. 652 75 60 52.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ibarran. Bi logela. Garaje itxiarekin. 656 73 13 21.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso ekonomikoa. Hiru logela eta egongela. Bikote edo ikasleentzat egokia. Jose Angel eta Laura. Deitu telefono honetara: 615 74 32 79 edo 696 79 43 88.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran, ikasleentzat. Deitu telefono honetara: 646 81 03 35.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera unibertsitate ondoan. Hiru logela. Berogailuarekin. Deitu telefono honetara: 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berogailu zentrala dauka. Igogailua. Deitu telefono honetara: 605 77 51 71.

**Oñati.** 100 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 645 71 98 84.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Deitu telefono honetara: 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. 605 73 90 03.

**Arrasate.** Logela edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Mutil arduratsua naiz, lan finkoarekin. Deitu telefono honetara:943 77 07 01 edo 656 66 49 75.

**Bergara.** Etxe bat errentan hartu gura dut, Bergarako edozein zonatan. Reina. Deitu telefono honetara: 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 658 28 90 86.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Antzuolan bada hobeto. Presazkoa da. Deitu telefono honetara:617 88 20 93.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu telefono honetara:659 35 09 30.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 607 59 18 49.

**Arrasate.** Mutil batek logela hartu nahi du errentan. Deitu telefono honetara: 645 72 25 24.

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela. Wi-fia. Eguzkitsua. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Arrasate.** Ferrerias kalean 135 metro koadroko etxea osatzeko kide bila. 4 logela, 2 komun, sukalde hornitua eta saloia. Gasezko kalefakzioa. Hilabetean 187,50 euro (gehi gastuak). 658 70 01 05 edo 652 71 79 19.

**Bergara.** Gela bat ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara:627 75 81 94.

**Bergara.** Mutil gazteak gela behar du. Deitu telefono honetara:664 07 78 03.

**BERGARA**

**Hileta zerbitzuetarako langilea behar da. CV-a aurkeztu martitzen-eguenak 09:30-11:30 Amillaga 39, Bergara**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Neska euskalduna behar da ume bi arratsaldez zaintzeko. 635 85 91 34.

**Bergara.** Emakume bat behar dut, etxean lan egiteko goizetan. Deitu telefono honetara:615 75 46 17.

**Bergara.** Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara:943 76 55 26 edo 695 78 06 60.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna 18:00etatik aurrera edozein lan egiteko prest. Deitu telefono honetara: 650 06 01 35.

**Arrasate.** Mutil arduratsua gertu goizetan taberna, elkarte edo atarteak garbitzeko. 943 77 07 01 edo 666 21 88 95.

**Arrasate** Emakume euskalduna eskaintzen da egunean bi orduz lan egiteko. Goizez nagusiak zaintzeko edo bestela arratsaldez ume edo nagusiak zaintzeko. Rosi. 943 77 16 01 edo 672 20 36 82.

**Autobus** eta kamioi gidari lanak egiteko gertu nago egubakoitz eta asteburuetan. Deitu telefono honetara: 658 95 18 64.

**Bergara.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago. Deitu telefono honetara: 943 53 40 01.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. Orduka. Deitu telefono honetara: 680 87 38 66.

**Bergara.** Erizain Laguntzaile ikasten dabilen neska bat eskaintzen da, haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Deitu telefono honetara: 618 12 07 44.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu 15:00etatik aurrera umeak zaindu, etxeko lanak egin edo LHko eskola partikularrak emateko. Deitu telefono honetara: 615 70 55 50.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia duen emakume bat prest dago asteburuetan edo gauez lan egiteko. Deitu telefono honetara: 606 64 16 09.

**Debagoiena.** 39 urteko gizona egun erdiz lan egiteko gertu. Iñaki. Deitu telefono honetara: 608 49 89 93.

**Debagoiena.** Edozein lanetarako gertu dagoen mutila naiz. 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 615 72 15 17.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. 663 65 77 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizetan garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Aste bukaeratan ere lan egiteko prest nago. 699 09 46 26.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Gauez edo goizetan orduka. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 637 21 97 04.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzaile esperientziaduna nagusiak, gaixoak edo umeak zaintzeko gertu arratsalde eta gauetan. 943 76 53 43 edo 666 76 81 32.

**Debagoiena.** Erizaintzako teknikari laguntzailea pertsona nagusiak, umeak eta gaixoak zaintzeko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Debagoiena.** Esperientziadun pertsona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta hirugarren adineko pertsonen zaintzarako. 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Geriatria ikasketak dituen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Estefania. 659 12 42 25.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu lan egiteko. Gidabaimena dut. 697 66 79 37.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari lanak, atari garbiketak edo bestelako lanak egiteko. 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan lo eginda. 943 08 15 39 edo 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu garbitasun edo sukalde lanak egiteko. Baita harategi edo arrandegirako ere. Manipulatzaile txartela daukat. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaindu edo atari, etxe zein baserriak garbitzeko. Autoa daukat. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Garbitasun lanak: etxebizitzak edo atariak. 669 12 70 98.

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan lo eginda nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Etxe garbiketan edo umeak edo adinekoak zaintzen jardungo nuke. Orduka ere lan egingo nuke. 659 35 09 30.

**Debagoiena.** Soldadura lanak egingo nituzke. 677 17 43 75.

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut orduka (egubakoitz arratsaldegau eta asteburuan). Bazkari edo afariren bat baduzu, deitu. Esperientzia handia, irakaskuntzan diplomaduna naiz. 651 70 85 13.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Irakaslea.** 1. batxilergoko ikasle bati matematika eta ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar dut. Deitu telefono honetara: 627 34 92 27.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta, Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dudan neska bat naiz eta eskola partikularrak emateko prest nago. LH eta DBHko 1. eta 2.mailetan. 666 38 57 97.

**Bergara.** Ingeles irakasle ezaguna berriro eskolak emateko gertu. Eskola laguntza edo azterketak gertatzeko. Bolu. Deitu telefono honetara: 616 12 56 29.

**Bergara.** Neska euskalduna DBHko 3. eta 4. mailetako eskola partikularrak emateko gertu. 675 70 17 63.

**Ingelesa.** Talde txikiak. Goizez edo arratsaldez. Kalitatea bermatuta. Arrasaten. 635 75 50 36 edo 943 79 24 59.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 678 72 75 72.

### 702. EROSI

**Basurde** ar helduak erosiko nituzke. 678 72 75 72.

### 703. EMAN

**Txakurkumea** opari egiten da, arraza txikikoa. Etxerako osoa egokia. 605 75 42 65.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**'Mobil home'-a** salgai Santo Domingo de la Calzadako kanpinean. 635 73 78 72.

**Altzariak.** Zuzendari bulegorako bigarren eskuko altzariak salgai. Deitu telefono honetara: 656 70 25 91.

**Argazki kamera** salgai. Olympus 790 SW. 7.1 M, 3xZO pt, Shock+Waterproof, FaceDetection…Berri-berria eta garantiarekin. 200 euro. Deitu telefono honetara: 660 43 64 29.

**Bikiendako** aulkia saltzen dut. Oso ondo zainduta. Maxicosi eta eurirako plastiko eta guzti. Urdin iluna. 350 euro guztira. 626 17 51 08.

**Debagoiena.** Emaztegai soinekoa saltzen dut. Egoera onean. 42-44 neurrikoa. Handi edo txiki daiteke. 700 euro. Zapatak eta zetazko xala opari. 636 83 85 32.

**Debagoiena.** Motorren eta autoen gaineko aldizkariak saltzen ditut. Asier. 617 17 15 88.

**Entziklopedia** salgai. Auñamendiren 'Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco'. 30 liburu inguru. Prezio onean. Deitu telefono honetara: 686 20 03 31.

**Errepideko bizikleta.** Giant TCR. Neurria: M. Campagnollo Veloce taldea. Campagnollo Scirocco gurpilak. Triatloiko akoplea. Kilometro-kontagailua. Beste plater joko bat eta botak oparitzen ditut. Ez erabiltzeagatik saltzeko asmoa. 600 euro. 645 00 81 41.

**Eskiak.** Fischer markako eta 1,70 neurriko eskiak salgai. 120 euro. Deitu telefono honetara: 669 83 60 53.

**Eskiatzeko botak.** 41-42 zenbakiko eskiatzeko botak salgai. Behin erabiliak. 90 euro. Deitu telefono honetara: 669 83 60 53.

**Eskiatzeko botak.** Atomic etxekoak. 37-38 zenbakia. Berogailurako instalazioarekin. Oso egoera onean, behin erabiliak. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. Deitu telefono honetara: 667 94 52 12.

**Eskoriatza.** Mendiolan 2007ko irailean botatako txikitu gabeko su-egurra salgai: pagoa, haritza, lizarra eta gaztainondoa. 17:00etatik aurrera. Oskar. Deitu telefono honetara: 650 86 76 19.

**Fijazioak.** Dynastar markako Look eskiatzeko fijazioak salgai. Emakumezkoendako bereziak. Oso egoera onean. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. Deitu telefono honetara: 667 94 52 12.

**Game Boy.** Bi Game Boy Advance SP berri-berriak salgai. Bakoitza bere jokoekin: Zelda eta The SIms 2. Batek 25 euro eta biek 40. 679 74 00 61.

**Gurpilak.** Elurretarako gurpilak salgai. Berriak. 195x65 R16 neurrikoak. Hagunak (llantak) barne. 300 euro. Ana. 636 43 88 47.

**Hozkailua,** garbigailua eta zazpi erradiadore ditugu saltzeko. 669 28 20 64.

**Karabana.** 6 lagunentzako karabana salgai, Etxarri Aranazko kanpinean instalatuta. Guztiz egokitutakoa: hozkailu, sukalde, mikrouhin, telebista eta abarrekin. 609 54 88 59.

**Lehorgailua.** Arropa lehortzeko aparailu elektrikoa saltzen da. 670 85 85 41.

**Mendiko bizikleta** salgai. BH Coronas. Shimano Deore kanbioak. 24 abiadura. 285 euro. 943 79 59 34.

**Mendiko bizikleta** salgai. Trek Fuel 8. Suspentsio bikoitza. Egoera ezin hobean. XTR-XT osagarriekin. 1.500 euro. 626 61 82 66.

**Ordenagailua.** salgai, bigarren eskukoa. Hiru urte ditu. 150 euro. 943 08 18 13.

**Trialeko** bi bizikleta saltzen dira. Monty markakoak. Ia berriak. Bakoitzak 250 euro. Deitu telefono honetara: 943 79 54 21.

### 802. EROSI

**Basalurrak** erosiko nituzke Bergaran. Deitu telefono honetara: 669 17 09 51.

**Umeendako arropak.** Bigarren eskuko umeendako arropak erosiko nituzke. Saltzeko gertu dagoenak dei dezala ondoko telefonoetara. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

### 804. HARTU

**Sehaska** hartu edo erosiko nuke. Deitu telefono honetara: 650 96 23 08.

**Umearendako bizikleta** hartu edo erosiko nuke. Bi urteko umearentzat modukoa. 650 96 23 08.

### 806. GALDU

**Eskumuturrekoa** galdu nuen Aloñatik Oñatirako bidean. Urrezkoa. Marilo izena eta jaioteguna ditu idatzita. Deitu telefono honetara: 688 63 25 59.

**Lepokoa.** Olarteko ikastolarako bidean zilarrezko katea galdu nuen, bi domina zituela. Horietako domina bat berreskuratu gura nuke, besterik ez bada. Umetxo itxura du, izen bat atzetik daukala. Mesedez, aurkitu baduzu deitu. 626 17 51 08.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Abeslaria.** Rock abeslaria talde bila dabil. 657 02 15 96.

## ETXE AGENTZIAK

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 $m^2$ + 42 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 $m^2$. Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 $m^2$. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Ozaeta 70 $m^2$. Oso ondo.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 $m^2$. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 $m^2$. Terrazarekin. Ortua.
- Moyua. 75 $m^2$. Oso aukera ona.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Kontsumo.** Eusko Jaularitza. Kontsumo gaietan prestatu eta ikertzeko bekak. Bi beka daude: Zuzenbideko lizentziatura eskatzen da batentzat eta Dokumentazio eta Bibliotekonomiako lizentziatura edo diplomatura bestearentzat.

### LANA

**> Begiraleak.** Eskoriatzako Udala. Gabonetako Parkerako (abenduaren 28an, 29an eta 30ean) begiraleak behar dira. Epea: azaroaren 4a.

**> Udaltzainak.** 2 udaltzain Zumarragako Udalereko. Epea: azaroaren 12a.

**> Gizarte Langilea.** Zumarragako Udalean Gizarte Zerbitzuetako lanpostu bat betetzeko oposiziolehiaketa.

**> Ekonomiko teknikaria.** Donostiako Udala. Ekonomia-alorreko Goimailako Teknikarien Lan-poltsa sortzea. Aukeraketa oposizio-lehiaketa bidez egingo da. Epea: azaroaren 6a.

**> Zerbitzu teknikoa.** Eibarko Udala. Zerbitzuetako erdi-mailako lanpostu bat aldi baterako betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: azaroaren 19a.

### IKASTAROAK

**> Espeolologia.** Gipuzkoako Goi Mailako Eskola. Azaroaren 8/9 eta 14/15ean Aralarko mendilerroan. 15 eta 21 urte bitarteko gazteentzako beka (%65).

### LEHIAKETAK

**> Egutegi diseinua.** Bergarako Udala- Gazte Informazio Zerbitzua. Oinarriak: www.bergara.net Epea: azaroaren 14a.

**> Kartela.** Urola Garaiko Garapenerako Agentzia. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako I. Kartel Lehiaketa. Epea: azaroaren 11a.

### EKINTZAK

**> Musika.** Gaztemaniak. The Strugglers + The Floorbirds + Idiot Kid kontzertuan, azaroaren 9an Zarauzko Gaztelekuan, 20:00etan.

**> Zinema.** XIX. Donostia Kultura. Fantasiazko eta Beldurrezko XIX. Zinema Astea, urriaren 31tik azaroaren 08ra arte.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 3



**Kirol Sariak 'Harmailatik' saioan hizpide 19:45**

Aurten lehenengoz egingo diren Debagoieneko Kirol Sariak izango dira mintzagai Aretxabaletako kirol teknikariaren eskutik.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Arte irekia.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikuskizuna.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: The 5 Twisters eta Ymotek
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Harmailatik.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

### Martitzena, 4



**Iñigo Segurola 'Ilunpean' saioan martitzenean 21:45**

Iñigo Segurola Euskal Herriko paisajista bakarrenetariko bat da. Goiena Telebistan, ikasketen eta ofizioaren gainean arituko da.

**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Gazpatxoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Arte irekia.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Danbaka: Ni neu
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Ilunpean: Iñigo Segurola
**22:30** Ikuskizuna.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 5



**'Berriak' saioa egunero Goiena Telebistan 14:45**

Goiatz Aranaren eskutik, Debagoienean gertatzen denaren gaineko informazioa jasoko duzue egunero, 14:45ean, Goiena Telebistan.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Zaharrak berri.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Erreportajea.
**22:30** Perretxikoen mundua.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 6



**>Aretxabaletako Scam taldea eguenean GOITBn 20:30**

Danbaka lehiaketako kontzertuak eskainiko dituzte martitzen eta eguenean. Lehenengoan Ni Neu taldea aritu ko da eta eguenean, Scam taldea.

**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak
**13:45** Perretxikoen mundua.
**14:15** Eltze beroa: Arroza artzo masailarekin.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Danbaka: Scam.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Erreportajea: Olaia Perurena.
**23:15** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 7



**> 'Katagorri' marrazki bizidunak 17:15**

Egubakoitzero, 17:15ean, Katagorri marrazki bizidunak eskainiko ditu Goiena Telebistak. Etxeko txikiek tarte on bat pasatzeko aukera bikaina, beraz.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Gure saltsan.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Solaskide: Cecilia Lenoz.
**22:15** Danbaka: The 5 Twisters / Ymotek.
**23:15** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Zartzuelarako sarrerak zozketatzeko Arrasate Irratian 10:30**

Izaskun Murgia elkarte lirikoak prestatutako *El Barberillo de Lavapies* Barbieriren zartzuela ikustera joateko zortzi sarrera dituzte irratian. Interesa beduzu, deitu ezazu 943 25 05 05 telefonora.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## asteko hitzorduak

### Ikus-entzunezkoa




ARETXABALETA

**> Munduan barrena tandemean ibili zirenen esperientziak**

*Tandemean Hego Ameriketan barrena* delako ikus-entzunezkoa egingo dute Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe senar-emazteek, euskaraz eta gaztelaniaz. Eguenean da, hilak 6, kultura etxean, 19:30ean.

### Erakusketa



BERGARA

**> Manu Muniategiandikoetxearen lanak, erakusketan Aroztegin**

Manu Muniategiandikoetxea bergararraren margolanak ikusteko aukera dago azaroaren 7an hasita: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

### Zinema



ARRASATE

**> 'Wanted (se busca)' filma emango dute gaur, astelehena, Amaian**

*Wanted (se busca)* filma emango dute Amaia antzokian, 20:30ean. Wesley izeneko gazte bat da protagonista: dena gaizki irteten zaio, baina emakume misteriotsu bat ezagutuko du, eta superheroi abileziak dituela jakingo du.

kuxkuxeroa



Mirian Biteri

# Guztiondako hitzorduak daude gurean

Azkenaldian ohikoa den moduan, askotariko ekitaldiak izan dira aste bukaeran gurean. Bariku gauean, Danbaka musika lehiaketaren bigarren kontzertua izan zen Elgetako Espaloian. Eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere, jende asko bildu zen han, baita ume batzuk ere. Gustura ibili ziren han **Goienako lankide** asko eta baita agertoki gainera igo ziren musikarien senitartekoak eta lagunak ere.

**GOITBko kamerak** eta **GOIENKARIAko argazkilariaz** gain, hainbat ikus-entzule jo eta su ibili zen kontzertuen irudi eta bideo ederrak hartzen, puntako teknologiako telefonoak erabiliz.

**Arrasateko zinegotzi Izadi Mondragon RIPen aldeko kontzertuan izan zen**

Zapatu arratsaldean, Soraluze eta Bergara arteko lasterketa egin zuten. Debagoiendar asko animatu zen parte hartzera; tartean, **Juan Martin Elexpuru** idazle bergararra eta Arrasateko kirol zinegotzi **Yolanda Perez de Arenaza**. Azken horrek etsenpluaren bidez predikatu zuen.

Egun berean, Antzuolan, saiheski-jana egin zuten Zurrategin, apirilaren 25ean izango den Debagoieneko Trikitilari Egunerako dirua batzeko. Jende asko bildu zen, baita hango alkate **Pedro Iturbe**. Udal ordezkariekin jarraituz jakin izan dugu Arrasateko zinegotzi **Izadi Mondragon** RIPen aldeko kontzertuan izan zela.

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

zorion agurrak



ARRASATE
**Jon Unamuno Aldabe**
Urriaren 27an. Zorionak osaba Jon! Patxo pila pila patata tortila Julene eta Iratiren partetik.



ARETXABALETA
**Xabier Etxeberria**
Urriaren 29an, urtebetetzea. Berandu bada be zorionak Xabi familia guztiaren eta bereziki Aneren partetik!



ARETXABALETA
**Asier Lizarriturri**
Urriaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako aitatxo! Ondo-ondo pasau eguna. Patxo haundi bat. Araitz.



OÑATI
**Enaitz Kortabarria**
Urriaren 30ean, urtebete betetzen du Zorionak potxolo! Oso ondo pasa zure lehengo urtebetetzean. Patxo handi-handi bat familia guztiaren partez.



ARRASATE
**Leire Balzategi**
Urriaren 30ean, 20 urte. Zorionak Leire! Patxo asko Danimarkatik!



ARETXABALETA
**Nerea Zubizarreta**
Urriaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako guapa!! Ondo-ondo ibili Argentina aldian. Patxo handi bat. Araitz.



BERGARA
**Nerea Alzola**
Urriaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako prexioxa! Bergara inguruko lagunak...



BERGARA
**Mireia Sebal Lazpiur**
Urriaren 30ean, 7 urte. Ia ba haginak lasten irtetzen dien bestela ezingo dozu tartarik jan eta! Zorionak eta patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
**Beñat Jimenez Orobengoa**
Urriaren 31n, 6 urte. Zorionak Beñat! . Patxo handi-handi bat aitatxo, amatxo eta Lukenen partetik!



ARRASATE
**Lier Escobar**
Azaroaren 1ean, 2 urte. Zorionak Lier! Txokolatezko muxu mordo bat zuretzako familia guztiaren partez. Paaa!



ARETXABALETA
**Leire Elizondo Aranburu**
Azaroaren 1ean, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Irati Mujika Elkoroberezibar**
Azaroaren 2an, 2 urte. Etxekoen eta Anderren partetik zorionak!



OÑATI
**June eta Nahia Blázquez Zelaia**
Azaroaren 2an, 3 urte. Zorionak bikote! Hiru pastel prestatu, gainean hiru kandela piztu eta zuekin ospatuko ditugu hiru urte horiek. Patxo haundi bana familiaren partetik.



ARRASATE
**Ane Diaz de Tuesta**
Azaroaren 2an, 21 urte. Arrasate, Bermeo eta Oñatitik zorionak, Ane!



ARRASATE
**Maider Frutos Uribesalgo**
Azaroaren 3an. Zorionak potoki! 4 urte ia gure neskak. Patxo handia etxekuen partez.



ARRASATE
**Aimar Garitaonaindia**
Azaroaren 3an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Nagore Garitaonaindia**
Azaroaren 3an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Arantzazu Iturbe**
Azaroaren 3an. Zorionak preziosa, zure lagunen partez! Kafetxo bat hartuko dugu ospatzeko!



ARRASATE
**Josu Orobengoa**
Azaroaren 3an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik eta patxo handi bat.



ARRASATE
**Luken Jimenez Orobengoa**
Azaroaren 3an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak Luken! Patxo handi bat aitatxo, amatxo eta Beñaten partetik!



OÑATI
**Maddi Igartua**
Azaroaren 3an, 5 urte betetzen ditu Zorionak etxekoen partetik, batez ere Haizeren partetik.



ARRASATE
**Julen Fernandez eta Jokin Perez**
Azaroaren 3an, 5 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARRASATE
**Ainhoa Arrizabalaga Gonzalez**
Azaroaren 3an, 14 urte betetzen ditu. Zorionak Ainhoa! Donostiako neskatxa politenari patxo handi bat Arrasateko familiaren partetik. Ondo pasa!



ESKORIATZA
**Goiatz Arana Larrañaga**
Azaroaren 3an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak potxola! Ondo pasau eguna Aramaixotik, batez be Amaiur eta Uxuen partez!



BERGARA
**Josu Martinez Loiti**
Azaroaren 4an, 4 urte betetzen ditu. Etxekoen partetik eta Zubixaurretik zorixonak! Eta badakizu: amamari patxito bi, haundihaundixak.



ARRASATE
**Irati Gallardo**
Azaroaren 4an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak panpoxa osaba-izeba eta bereziki Unai eta Lorearen partetik!



ARETXABALETA
**Oxel Artolazabal Martinez**
Azaroaren 4an, 3 urte betetzen ditu Zorionak Oxel! Ondo-ondo pasa zure urtebetetzea laguntxo eta familiarekin! Baina zein haundi egin zaren denbora gutxian! Patxo handi handi bat etxeko guztion partez baina bereziki Lurren partez!



BERGARA
**Paul Roman Payas**
Azaroaren 5ean, 8 urte betetzen ditu. Maider, Araceli eta familiaren partetik, zorionak!



OÑATI
**Ane Anduaga Larrea**
Azaroaren 5ean, 9 urte betetzen ditu Zorionak Ane! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Patxo handi bat Leire ta Nerean partez.



OÑATI
**Asier Anduaga Larrea**
Azaroaren 6an, 4 urte betetzen ditu Zorionak txapeldun. Ondo pasau eta patxo handi bat etxekoen partez.



OÑATI
**Javier Zelaia Arregi**
Azaroaren 6an. Zorionak aitaita! Ondo pasa zure urtebetetzean. Patxo handi bat, Leire, Nerea ta Jon.



ARETXABALETA
**Aitor Artolazabal Narbaiza**
Azaroaren 7an, 37 urte betetzen ditu Zorionak munduko aitatxo onenari! Ea berriz ere Kurtzeberrira igoten garen eta gogoratu Errealaren partidura ere eraman behar gaituzula! Ondo-ondo pasa zure urtebetetzea! Patxo haundi bat Oxel eta Lur-en partez!



BERGARA
**Maddi Arando Arbelaitz**
Azaroaren 6an urtebete. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Ane Leturia Delfrade**
Azaroaren 7an, 21 urte betetzen ditu. Zorionak Anus! Ea elkartzen garen ospatzeko! Patxo haundi bat.



ESKORIATZA
**Ane Eraña**
Azaroaren 7an, 9 urte. Zorionak etxeko guztion partetik.

## asteburuko albuma



**Afalostea Eskoriatza.** Egubakoitzean kultur arteko afalostea antolatu zuten Eskoriatzako Udalak eta Garabide Elkarteak. Afalostea 22:30etan hasi zen eta bi orduz luzatu zen. 20 pertsona inguru elkartu ziren. Guatemala, Ekuador, Peru eta Boliviako kichwak, maputxeak, mayak eta guaraniak ziren tartean. Han bildutakoei herrialde horien gaur egungo egoera azaldu zieten. Dantza egiteko eta bidezko merkataritzako produktuak probatzeko astia ere izan zuten.



**Zabalotegiko inaugurazioa.** Bergarako Zabalotegi areto eraberritua ofizialki inauguratu zuten egubakoitzean. Musikaz girotutako sarrera ekitaldiaren ostean, dantzariak igo ziren agertoki gainera. Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Musika Eskolako Ganbara taldeak, gainera, kontzertua eskaini zuten.




**Antzezlana Bergarako gaztetxean.** Atzo, domeka, *SOS Temible. El silenciador* antzezlana ikusteko aukera izan zuten Bergarako gaztetxera gerturatu zirenek. Txiflando Improducciones taldearen antzezlana da hori.



**Hitzaldia Oñatin.** Gazte asanbladen gaineko mahai-ingurua izan zen atzo arratsaldean Oñatiko gaztetxean, gaztetxearen inaugurazioko ospakizuen barruan. Bergarako eta Soraluzeko gazte asanbladako kideek bere esperientzia azaldu zuten. Horretan 35 lagun inguruk parte hartu zuten.

## jaiotakoak



**Aner Dorronsoro Lete**
Arrasate > 4,030 kilo. Urriaren 26an. Gurasoak: Eider (Arrasate) eta Igor (Orio). Argazkian, Aner jaioberria, amarekin.



**June Gonzalez Delgado**
Arrasate > 3,040 kilo. Urriaren 26an. Gurasoak: Alicia (Arrasate) eta Toño (Arrasate). Argazkian, June jaioberria, amaren besoetan.



**June Eizagirre Sanchez**
Arrasate > 3,710 kilo. Urriaren 26an. Gurasoak: Nuria (Bergara) eta Jon Ander (Arrasate). Argazkian, June jaioberria, aitaren besoetan.



**Danel Balantzategi Sainz**
Bergara > 2,890 kilo. Urriaren 27an. Gurasoak: Gemma (Bergara) eta Joxe (Bergara). Argazkian, Danel jaioberria, Alicia amandrearekin.



**Enaitz Carmona Largo**
Eskoriatza > 3,250 kilo. Urriaren 28an. Gurasoak: Olga (Eskoriatza) eta Luis Carlos (Arrasate). Argazkian, Enaitz jaioberria, amarekin.



**Julen Salas Del Val**
Arrasate > 2,970 kilo. Urriaren 28an. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Jose Luis (Arrasate). Argazkian, Julen jaioberria, lo goxoan.



**Izar Ezkibel Bastida**
Oñati > 2,980 kilo. Urriaren 29an. Gurasoak: Monika (Arrasate) eta Iñigo (Oñati). Argazkian, Izar jaioberria, bapo lo.




**Nora Guridi Carrascal**
Oñati > 4,160 kilo. Urriaren 30ean. Gurasoak: Gemma (Arrasate) eta Josu (Oñati). Argazkian, Nora jaioberria, lotan.



**Claudia Martin Pereda**
Oñati > 3,450 kilo. Urriaren 30ean. Gurasoak: Laura eta Miguel Angel (Oñati). Argazkian, Claudia jaioberria, sehaskan lo.



**Haizea Aranburu Moreno**
Oñati > 3,410 kilo. Urriaren 26an. Gurasoak: Ane Miren (Oñati) eta Gaizka (Oñati). Argazkian, Haizea jaioberria, amaren besoetan.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**



ESKER ONA

# Juan Antonio Ena Enekotegi

Bergaran hil zen 2008ko urriaren 11n, 85 urte zituela



Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko haren emazte, seme eta sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko azaroaren 3an.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-11-03

**Txuma Murugarren** > Musikaria

# "Betaurreko barik ikustea zen nire ametsa"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Txuma Murugarren ezaguna da 80ko hamarkadatik musikan dabilelako. Sasoi Ilunak zen bere talde ikurra eta gerora bakarka ekin zion. Bere hitzek xarma berezia daukate, eta igartzen da asko irakurtzen duela. Irakaskuntzan dihardu.**

**Begietan ebakuntza egin berri duzu. Erraz ohitu zara betaurreko barik ibiltzera?**

Bai, oso erraz. Aldaketak onerako badira, beti hartzen dira ondo. Oso gustura nago. Are gehiago, txikitan ohera sartzen nintzen eta esaten nion nere buruari: bihar goizean ondo ikusiko dut. Eta, jakina, sekula ez zen betetzen.

**Zer abesten diozu Matei jaioberriari?**

Bururatzen zaidana, denetatik. Gehienbat onomatopeiekin asmatutako gauzak. Gainera nik kantu zaharrak ez ditut gogoan; oso oroimen txarra daukat.

***Hegazkinen arima* da zure disko baten izena, baina izan zara hegazkin baten barruan?**

Bai, inoiz bai, baina kostata. Pentsa, Errumaniara autoan behin baino gehiagotan joan naiz: 6.000 kilometro joan eta etorri. Egia esan, hegazkinek beldur handia ematen didate.

**Autoak, berriz, oso gustuko dituzu…**

Bai, hala da. Autoak babesa ematen dizu, baina gura duzunean babes hori apurtu eta kanpora atera zaitezke. Libre zara…

**Zuk bizitza lausotuta ikusten duzu?**

Bizitza leku bitxia da eta bi ikuspegi izan ditzakezu. Ni paper baten aurrean kritikoagoa naiz bizitzarekin, ikusten dizkiot akats guztiak. Paperera bota ezean, ez da oso erosoa kaletik halako zamarekin ibiltzea. Bizitza dena delakoa bada ere, bizi egin behar da.

**Eta inoiz pentsatu duzu musikatik bizitzea?**

Ez dut inoiz halako asmorik izan. Batzuk saiatzen dira lan handiz, proiektu askorekin, handik hona… Ni ez naiz oso musikari ona beste talde batekin jotzeko, nire kantuak moldatzeko lain dakit. Hortaz, gurago dut nirea egitea.

**Inoiz esan duzu musikaria ez zarela, idazlea ere ez, eta bakarlaria izateko konpromisorik ez daukazula. Zer zara?**

Istorioak kontatzen duen tipo bat. Musikaria izendatzeko lain ez dut instrumenturik menderatzen. Idazlea izateko hitzen zirrikituak ezagutu behar dira, eta nik badakit zeintzuk diren benetako idazleak.

TEST-A

**Herria:** Errenteria. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Euskal Filologia. **Zaletasunak:** Irakurtzea eta musika. **Zer amets bete duzu?** Disko batzuk eta liburu bat egitea. Umea ere etorri da, eta gauza ederra da. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Gauzatu arte ez dira ikusten. Datozenean esango dizut. **Nora egingo zenuke bidaia bat gustura?** Siberian barrena ibiliko nintzateke 4x4 ibilgailu baten. **Zer dauka Europako ekialdeak ?** Bizitzeko jarrera bat.



**MOLDAERRAZA** Edozein lekutan gustura egotekoa da Txuma. IKER BARANDIARAN

## ai, ene!



### Txakur zortedunak

Txakur batzuk ezin dira kexatu, aberatsak bezala bizi diraeta. Jabeek etxe dotoreak egiten dizkiete berogailu eta guzti, erosoago bizi daitezen. Ziur batek baino gehiago inbidia duela goiko irudia ikustean.

http://www.sarda.es

## biharamuna

Oier Bolibar

### Pasatzen ikusten gaitu

Pasatzen ikusten gaitu hark, bertan jarraitzen duen bitartean, ez bait gara gehiago pasatuko, edo egongo, edo izango.

Arrikutzeko kobazuloen erreportajea ikusi dut Goiena Telebistan, orain 17 urte izan nitzen bertan azken aldiz. Eta pasatzen ikusi nau.

Modelatu karstikoak bi alderdi ditu nonbait, egonkorra, estatikoa, denboraren testigu dena, eta dinamikoa, bizirik dagoena, denboran aldakorra.

Denbora pasa da, baina galeriek bertan diraute, batzuek berdin, estatiko, ixilpean, ilunpean. Besteek dinamiko, uraren jazarpena pairatzen, bizirik.



Bistakoa da denboraren eragina, urteen iragana. Arkaitzean landuriko espazioaren desokupazioa deituko luke oraindik orain 100 urte beteko lituzkeen Oteizak. Hura ere pasatzen ikusi dugu, eta espazioaren inguruko gogoeta utzi digu. Baita hutsunea ere, desokupazioa. Inoiz existitu den euskal artistarik handiena. Pasatzen ikusi dugu.

Eskala kontua da dena. Denbora berriz, halabeharrez aldaketei lotua, ezen aldaketarik ez balego, ez genuke denboraren pertzepziorik izango. Eta pasatzen darrai, ezen aldagai independientea baita. Pasatzen ikusten gaitu.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +12 | +5 |

Zerua estalita egongo da eta euria egingo du. Mendebaldeko haizeak gogor joko du eta arratsaldean hobera egin dezake.

www.euskalmet.net

IKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR



Oñatiko Iker Sukaldeak-en erakusketa aldaketagatik
Beherapen ikaragarriak
Zatoz ikustera!